

FONTES
LINGVÆ VASCONVM
stvdia et
docvmenta




SEPARATA

Año XLV • Número 116 • 2013

Artzibarko aldaera deitu
izanaren inguruan
(7 – barnera begirako zenbait erkaketa)

Koldo ARTOLA

FONTES LINGVÆ VASCONVM stvdia et docvmenta



La reduplicación compleja en euskera: notas acerca de su formación y sus paralelos en otras lenguas <i>Iván Igartua</i>	5
Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (7 – barnera begirako zenbait erkaketa) <i>Koldo Artola</i>	31
Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat <i>Ekaitz Santazilia</i>	91
‘ <i>Cer alcatte edo alcatte ondo</i> ’ Un dato para la geografía histórica del euskera en la Llanada alavesa (Axpuru y Heredia) <i>Roberto González de Viñaspre / Pedro Uribarrena</i>	121
Euskararen laguntzaile ahantziaz: * <i>iron</i> aditzaren historia <i>Manuel Padilla</i>	131
Basque complex predicates and grammar change <i>Juan Carlos Odriozola / Xabier Altzibar</i>	171
Biformulatzaile urruntzaileak: euskarazko diskurtso-markatzaileen hiztegia osatzeko atariko azterketa <i>Ines Garcia-Azkoaga</i>	191
Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa Nafarroako familia euskaldunetan (1970-2012) <i>Paula Kasares</i>	209
Sobre <i>Deredia</i> , nombre original y forma usada en euskara de <i>Heredia</i> <i>Mikel Gorrotxategi</i>	235
Topónimos alaveses de base antroponímica acabados en <i>-(i)ano</i> <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	245
Bai/ez galderen pertzepzioaren aldeak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera: euskararen prosodia gaitasuna lantzeko zenbait datu argigarri <i>Iñaki Gaminde / Asier Romero / Aintzane Etxebarria / Urtza Garay</i>	273

Año XLV
Número 116
2013

Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan

(7 – barnera begirako zenbait erkaketa)

Koldo ARTOLA*

Saio honen azpтитuluak dioen modura eta laburki esanik, aldaera honen baitan sailkaturiko zortzi herritan bildu den hainbat datu dakargu hona oraingoan, haien arteko erkaketatik zer eta zenbaterainokoa duten komun eta zer ez ikusteko asmoz.

Lurralde hauetan euskararen ahozko transmisioa XX. mendeko gerla zibila hasterako etenik zegoen jada, hizkera-molde honen azken hiztunak, gutxi-gorabehera, aipatu mendearen hasieran sortuak baitziren. Guk elkarrizketatu genituenean, duela hogeita hamar urte inguru, hitz egiteko dorpe xamar zeuden, batzuk ia ezinean, urte luzetako ahanztura-prozesu baten ondorio. Sarrera xume honetan, beraz, zer aurkeztu behar askorik ez izateaz gainera, zalantzatan gaude aukeraturiko bide hau abiarazirik asmatu izana, zailtasun asko aurkitu baitugu ekarritako hitzak sailkatzen hasi eta han-hor-hemenka hainbeste eta hainbeste ohar eta zehaztasun egin behar izatean, inoiz hasiriko bidean atzera egiteko tentaldia izateraino.

Izan ere, horretarako prestatu leihatiletan lekua irabazi nahi eta, hitzen baten aldaera idazterakoan, era honetan jokatu dugu: 1) Antzeko, hurbileko edota sinonimoak direnen artean, (,) idatzi dugu; 2) Antonimo direnen kasuetan, (/); eta 3) Zerikusi beharreko hitzen kasuetan (*abendu* eta *maiatz*, kasu), (;). Baldin herri batean *garbi* bildu bada eta beste batean *garbitu* (edo *ta zikin* eta *zikindu*), batzuetan zein bere leihatilan idatzi dugu, baina inoiz, leihatilan leku izanez gero, bata bestearen ondoan. Gainera, bere baitan bes-

* Donostiako Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa.

Esker biziak damazkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, Euskal Filologian lizentziatua den eta laguntzaile izan dudana Xabier semeari.

telako datu interesgarriren bat eskaintzen duen zenbait hitzi leku egin diogu, dela modismoa, dela atzizkia edo dena delakoa.

Diogunez, ez dugu garbi ikusten tamainako ur handitan sartzeak merezi izan duen (hainbeste datu eta iturri kontsultatu, irakurri, berrirakurri... hau, hori eta hura berriro erreparatu beharra...), baina, egia esateko, arazoak kon-turatu orduko saioa aski aurreraturik zegoenez, tira, zirt edo zart, bururatze-raino eramatea izan da gure azken erabakia. Irakurleak barkatuko ahal digu datuen aurkezpena batere ortodoxoa ez izatea. Datuok, nolnahi ere, hor daude eta baldin zerbaitetarako balioko badute, horrekin konformatuko gara.

Herrioi zutabe bana prestatu eta mendebaldetik ekialderanzko norabide-an ordenatu ditugu: lehenengo Hego-Esteribarko Ilurdotz¹ eta ondoren Artzibarko zazpi herriak: Espotz, Uritz, Hiriberri, Arrieta, Lakabe, Orotz-Betelu (kasu honetarako herri artzibartartzat jo duguna, orain ez hain aspal-di hala izan baitzen) eta Azparren. Aurrenik, baina, aipatu herrien, datu-emaielen, biltzaileen, materialen eta bilketa-daten berri ematen duen koadroa prestatu dugu:

HERRIAK	BERRIEMAILEAK	BILTZAILEAK	MATERIALAK	NOIZKOAK
Ilurdotz	Joaquin Garrues Goñi	Koldo Artola	inkestak eta hizketak	1981-1986
Espotz	Manuel Zazpe Garde	Koldo Artola	inkesta bat	1985-1986
Uritz	Juan Cruz Elizalde	Louis-Lucien Bonaparte	kristau-ikasbide bat	1865 urte ingur.
Hiriberri	Francisca Larrageta Monaut, Lino Méndez Expósito, Soledad Arbonies Larrageta, Paca Larrageta Imirizaldu eta Ambrosio Usoz Imirizaldu	Koldo Artola	elkarrizketak	1971-1983
Hiriberri	Ambrosio Usoz Imirizaldu	Aranzadi, EAEL ²	inkesta eta elkarrizk.	1979
Hiriberri	Soledad Arbonies Larrageta	Aitor Arana	elkarrizketak	2002
Arrieta	Saturmino Etxamendi Larrea	Koldo Artola	inkestak eta elkarrizk.	1981-1992
Arrieta	Juana Ibarrola	Euskaltzaindia, IKER ³	inkesta (Erizk. Iruk.)	1922
Lakabe	Javier Ibarra Murillo	Orreaga Ibarra	prediku bat	1925 urte ingur.
Orotz-Betelu	German Garmendia	Arturo Campion	Orreaga izeneko testua	1880 urte ingur.
Orotz-Betelu	Angela Orradre eta Fermin Arbuñies	Euskaltzaindia, IKER ⁴	inkestak (Erizk. Iruk.)	1922 urte ingur.
Orotz-Betelu	Juan Simon Goñi, haren emazte Pilar eta Fermina Iturri	Aita Donostia	toberak (RIEV)	1924
Orotz-Betelu	Juana Orradre	Ana Maria Echaide	inkesta (Eusk. en Nav.)	1976?
Orotz-Betelu	Gregorio Arzelus Arzelus	Koldo Artola	inkesta-apurrak	1983-1987
Azparren	Gregoria Bizkai Eskabel eta Agueda Bizkai Iribarren	Koldo Artola	inkesta eta apurrak	1983-1985

¹ Herrixka honetatik hurbileko Irotzen Javier Irigaray adiskideak, 1974an, bildu zituen datuetarik batzuk kontuan izan ditugu, hauek, gutxi izatean, zutabe bat egiteko adina eman ez badute ere.

² Biltzailea: Fermín Leizaola.

³ Biltzailea: Resurrección María de Azkue.

⁴ Biltzailea: Aita Eusebio Etxalarkoa. Herri honetan jaso ziren bi inkestetako baten erantzuleak Angela Orradre eta Graciana Ezkabel izan ziren, baina hau, sortzez oroztarra ez zenez, ez dugu kontuan hartu. Angela Orradre izan zen, gainera, erantzurik gehienak eman zituena.

Urizko eta Lakabeko datuetan, ulertzen erraza denez, gai erlijiosoarekin zerikusia duten hitzak dira nagusi, baina bada, era berean, lexikoaren aldetik jaingarria den hitz mordoska ederra. Gainerako herrietan, ordea, alderantzizko joera dugu, bestelako hitzak baitira nagusi eta giro erlijiosokoak, berriz, gutxiago.

Artzibarko Arrieta eta Hiriberri dira saio honetan prestatu dugun erkaketarako ardatza, bi herriok aldaera edo barietatearen erdialdean eta ibarraren iparraldean baitaude. Ditugun daturik gehienak ere bi herri hauetan eskuraturik gaude eta, hauek honela, bietako bat, ARRIETA, hautatu dugu lagin-erakusle nagusitzat. Arrazoia da herri honetan dugun ia informazio guztia lagun bakar bati, Saturnino Etxamendiri, zor zaiola (herriko beste iturriren batetik ekarritako datuak oso urriak dira) eta hari, agian, aurpegia eman liezaiokeen Hiriberri aurkezten dituen datuak, berriz, hainbat laguni zor zaizkiola, artean kanpoko eragina nozitu duen baten bati. Arrietak ‘agintzen’ du, beraz, bera baita, nolabait esateko, erreferentzi puntua, berari begira baitaude beste herrietan bilduriko datuak. Badira, haatik, ibarrean erabiliak izanagatik, saio honetara ekarri gabeko hitz asko eta asko, gure nahia ez baita hiztegi bat egitea izan, Aitor Arana adiskideak hain ederki burutu zuenaren antzekoa, hona dakartzagun herri desberdinen arteko hitzen antzekotasunak zein diferentziak agerian ezartzea baizik.

Zenbait dokumentutan aurkitu ditugun grafiak direla eta, azkenik, Urizko kristau-ikasbidekoa oraingo moldeetara egokitu dugula esan beharrean gaude. Honela, eskuizkribuan dakuskigun *ainguiru*, *facilqui*, *virgina*, *aprovechatu*, *aragui*, *ausi*, *verce*, *amberce* eta *vacar* gisako hitzak, adibide soil batzuk aipatzeagatik, guk *ainguru*, *fazilki*, *birjina*, *aprobetxatu*, *aragi*, *autsi*, *bertze*, *anbertze* eta *bakar* idatzi ditugu, hurrenez hurren.

Ana Maria Echaidek *El euskera en Navarra* izeneko lanean erabili zuen alfabeto fonetikoaren grafia ere, Orotz-Beteluko inkestari dagokion bezainbatean, ohiko ortografiaren moldeetara egokitu dugu, emaitzok gainerako datuenekin berdintze aldera.

Eta, besterik gabe, saioari hasiera emango diogu, aipatu erkaketarako bartzuetan pare bat herriren arteko datuak bakarrik baliatu ditugula esanik eta jarraiko oharra egin ondoren:



Saioaren eremutzat hartu dugun esparrua eta haren baitako datu-iturriak eskaini dizkiguten herrien kokapena irakurleari modu erraz batez erakusteko, mapa-parea prestatu dugu.


Lehenengoan, saio hauetan guztietan lanaren oinarritzat baliatu dugun Louis-Lucien Bonaparteren mapaz lagunduta agertzen denekoan, esku artean dugun eremuaren proiektzioa ikus daiteke, aipatu modu errazean aurkeztua.

Bigarrean, eremu hauxe dugu soil-soilik, bestean baino tamaina handiagoan. Saioaren funtsa diren herrixken izenak –herrixka diogu, denak baitira herri txikiak, haietako batek, Espotzek, gaur egun, biztanle bakarra besterik ez duena– itxura errektangularreko kaiolatxo banatan sartu ditugu haien kokapena zehazteko asmoz, mendebaldeko bazterrean Hego-Esteribarko Ilurdotz eta ekialdekoan Artzibarko Azparren ageri direla.

Litekeena da, agian, maparen erdialdean ageri den Arriasgoiti izena, Esteribarren eta Artzibarren artean kokatua, inorentzat bitxia izatea, gaur egun ez baita era horretan izendatzen. Kontua da 1943. urtean ibar hau Lizoainibar izenekoari batu zitzaioela, ordutik hona Lizoainibar-Arriasgoiti izeneko osatzeko.

Esku artean dugun eremua,
L. L. Bonaparteren maparen arabera.





Tamaina handiagoko eremu bera, herrien kokapena aise ikusteko eran.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
abar, adar	abar		abar, adar	abar, adar ⁵			abar
abendu ⁶			abendu	abendu ⁷		abendu	
abisetu				abisatu		abisatu	
abrats / pobre	pobre, eskas		abrats / pobre	abrats / pobre	aberastasun	abrats, abarats	
abre, azienda ⁸	azienda		abre	abre, azienda			
adin	adin		adin	adin			
agur ⁹	saludatu		agur	adio, alo	agurtu	adios, abur egin	
aextian, aixtian			aextian, aixtian	aixtian			
afari, afaldu, afaltu			afari, afaldu	afari, afaldu		afari, afaldu	
agertu, ageri		agertu (edo) ageri	plantatu	agertu, agertu ¹⁰	agertu	ageri	
ago, ezpain	ago; ezpain	ago	ago; ezpain	ago, abo; ezpain ¹¹	ezpain	ago	ago; aizpain*?
agotz, agoztegi ¹²			agotz, aotz, aoztegi	agotz, aotz, aoztegi			

⁵ Lehenengo lerro honetan jasotzen den hitza gaztelaniazko 'rama' da. Hitzren erdarazko esanahia adieraztea komenigarria iruditu zaigunean azaldu dugu halakoa. Ilurdotzen, *lauré-lia, laurel abár bat* ('una rama de laurel').

⁶ Ilurdotzen, mugaturik, *abendue*. Joera hau herri honetan gertatzen da bereziki eta baita, gutxiagotan bada ere, Espotzen, aurreko silaban *i* edo *u* bat izanez gero (ikus, hurrengo lerroan, *abisetu* hitza eta parekatu Arrietan eta Orotzen bildurikoekin). Uritzik ekialderanzko herrietan ez dugu halakorik ikusten, salbuespen urrien batean ez bada.

⁷ Ertzikizundi: Irukoitzak (E) Arrietako hilabete-izen guztiak dakartzu: *izozzila, otsaila, martxo, april, maiatz, garagarzaroa, garila, abuztua, urri, lastail, azaro eta abendua*. Hiriberriko Lino Mendez, 1971ean, honela mintzatu zitzaigun: *ezákit e... osállá, pa febrero bétí; después, enero, no sé cómo es... marzoá, después abrilá, abril; después, pa mayo, mayátza, y después, pa junio, ganarzá-roa, después garilla y no sé (...). agostoá, bueno, eso ya es como castellano, después urría es setiembre*. Herri honetan, gainera, *azaro* ere, 'noviembre', bildu genuen. Orotz-Beteluko izen guztiak honela: *izozzila, otsalla, marxoa / marxua, aprila / aprila, mayatza, garagarzaros, garila, abuztu, urria, lastaila / lastalla, azarua eta abendua / abendue (E)*. Ilurdozko berriemaiak ere, azkenik, koadtroaren ezker aldean, hilabete guztien izenak ematen asmatu zuten: *izozzille, otsalle, marxoa, aprile, maetza, garagarzáróa, garile, agoztue, urrie, lastaille, azarua eta abendue*.

⁸ Ilurdotzen *ábre = caballería*, berriemaiaren arabera.

⁹ Ilurdozko *agur* hori oitiz ezagun baten testuinguruan soilik. Arrietako berriemaiak, zeregin horretarako, *abe* erabili zuten: *Abe Maria*, eta Lakabeko apaizak *Ave Maria* idatzi.

¹⁰ Arrietan *plantatu* ere bai, 'agertu' aditzaren esanahiaz: *plantázen zairá jótzeru*; eta Hiriberrin ere antzera: *leóna, zánbná, altsznera plantátu zékidan* (A. Usoz). Uritzko leihatilan idazturikoa, bestalde, *secretuac aguercen* batetik atera dugu; ez dakigu, beraz, partuzipiorako zein era hautauko zuten Elizaldeak.

¹¹ Arrietan, mugaturik *ezpainá*, Ilurdotz, Espotz, Hiriberri eta Lakaben bezala. Azken herri honetan era mugatua soilik, leihatilan artikulua gabeturik agertzen bada ere.

¹² Lerro honetan: 'pajá' eta 'pajar'. Hiriberrin, bokalarteko *-g-* eroriaren ondorioz, *autz* era diptongatua ere bai.

Ilurdotz	Espotz	Urtz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
aguantatu			aguantatu, yasan ¹³	aguantatu, soportatu			
familie			aide, familia	aide, familia	aide, familia	aide	
ain		ain	ain, aibat	ain		ain	
		aingiru, angiru	aingiru	aingiru		aingiru	
aixe, aixe		aixa, fazilki		aixa, aixe	errazi	aixa, aixe	
aite; ama	aite; ama	aite; ama	aite; ama	aite; aite; ama	aite; ama	aite; ama	aite; ama
aiteguria		aitegurea	aitegurea	aitegurea	aitegurea		
aite eta ama	aite ta ama	aite eta amak	aiteak, aiteamamak	aiteamamak	gurasoak ¹⁴	aiteak	aite ta ama
aitu, entzun ¹⁵	aitu	aitu, entzun	aitu	aitu	aitu	aitu*	aitu
aixkide, aitzkide	aixkide		aixkide, aixkide	aixkide, aitzkide ¹⁶	aixkide	aixkide	
aize, aizetu	aize		aize, zearraize	aize, aizeratu ¹⁷	aize	aize	zigarraize
aizkora	aizkora		aizkora, aixkora	aizkora	aizkora	aizkora	aizkora
al izan			al izan	al izan ¹⁸	al izan	al (izan)	
aldare		aldare		aldare			
kambiatu, kambietu		mudatu	aldatu, kambiatu ²⁰	aldatu, kambiatu			

¹³ Hiriberrin bildu hitz hau ustez Nafarroa Beherekoa den kantu baterik aterata: *Zaku polbora tripan, norek behar du yasa(n.)* (A. Usorz).

¹⁴ Lakabeko Ibarra apaizak erabili hitz honek eremu honetatik kanpokoa dirudien arren (*EAE*-en arabera, Auritz eta Lekaroz kenduta, Belatetik mendebaldera agertzen da bakkirik), Lizarraga Elkanokoaren izkribueran (*gurasoak / burasoa*) eta Aita Estreban Adoangoarenetan (*gurasuak / burasoa*) kausi daitezke.

¹⁵ Ilurdozen *sóñue... aitzén*, alde batetik, eta *igénduan aitzén dut méza*, besterik. Urtzen, beriz, 'entzun' mezarekin loturik, nolabait esateko: *eta nola veaute enzau [meza]?*, eta Hiriberrin alderantziz: *meza aitu ut elizan* edota *goizero orruxtatzen gara elizaru juateko meza aitzera* (S. Arbonies).

¹⁶ Arrietan, *El delakoan, aixkide*.

¹⁷ Leihatila honetan: 'viento, aire' eta 'aventar'. Ilurdozen, *aize bat indérkoa, un aire fuerte eman ziguten*, eta Azparrengo leihatilan duguna *viento cruzado del norte dela esan*.

¹⁸ Arrietan 'ahal' iragangaitz zein iragankorarekin: *joaten al gara edota ien al duzu*, adibidez. Ahalera irudikatzeko besterik ere bada ordea: *ibil daike* edota *etsaket yan*, adibidez. Eta Ilurdozen ere antzera, *al ginduen bezala* bildurik baikaude eta, ahalera beste moduan irudikatzeko, *izen daike* edota *yan (t)zaket*. Azparrengo datuetan, azkenik, *joan naike* dakusagu.

¹⁹ Lakabeko balizko aldaera honi susmagarri deritzogu, ez baitugu inoiz aditu; akats bat ote?

²⁰ Hiriberriko leihatila honetan sartzen ez den *trukatu* ere bai, S. Arboniesek A. Aranari emana.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Berelu	Azparren
alde	alde	alde	alde	alde, alde in	alde	alde	
aldi, aldiero*	aldi, aldiero	aldi, aldiero	aldi	aldi, aldiero	aldi	aldi	
alegratu			alegratu		alaitu, poztu		
alke, alkeru	alke	alke	alke, alkeru	alke, alkeru ²¹		alke	
alor; pentze; dermio	alor		alor; larre	alor; sorio; sarro ²²		alor	alor
nekazari			laborari, labradore	alorreko langille		nekazari	
alxatu, alxatu	alxatu		alxatu	alxatu ²³			alxatu*
alzin / gibel		aitzin, aitzen	alzin / gibel, gibil	alzin / gibel, atze ²⁴	alzin	alzin, atzin / gibil	
altzur	altzur, atzur		altzur, altxur	altzur, altxur		altzur	altzur
alubie; baba	alubia; baba		baba	alubia; baba		alubia	alubia
tzipo; lintsuski				alz; tzipu; korosti ²⁵		alzt; korosti	korosti; lintsuski
allegatu, ellegatu	allegatu	allegatu	ellegatu, ellegatu	allegatu, ellegatu ²⁶	arribetu	ellegatu	ellegatu
ama berjine	ama birjina	ama birjina	ama berjina	ama berjina ²⁷	ama birjina	ama berjina	
amain ikustera		Jangoikoain ikustera	amaren ikustera	-tera: ama ikustera ²⁸			

²¹ Lerroan: 'vergüenza' eta 'avergonzar'.

²² Arrietan *alor* gisako aldaera ere bai. Aldaera hau aditirik gaude, aspaldi, Erronkaribariko Izaban eta Uztarrozen ere.

²³ Arrietan, eta baita ingurumari honetan guztian, *alxatu* 'esconder' da ohiki, inoiz, hitzaren zabaleraz edo antzekotasunaz, besterako erabili izan bada ere.

²⁴ Arrietan *alxin* ere bai eta, *gibel* hitzaren mugatzeari dagokionez, jarraiko adibidean laburbildua dakusagu: *Ordi artú bertze át? bertze eskíneta, ta, gíblá, déna ingurís-ingurís, pártzen zúte... ógia, oáño erre gabé*. Lakabeko izkribuan, mugatzean, *n-duna: alziña*. Orotz-Berelun, azkenik, *aurretik* ere bildurik dago (*El*), baina bertso batzuen testuinguruan bakarrik.

²⁵ Arrietako leihatila honetan: 'aliso', 'chopo' eta 'ácebo' (*xipuz* ere bai); Ilurdotz eta Azparrengo *lintsuski* / *lintxuski*, berriz, 'saúco' da.

²⁶ Arrietan *allegatu* eta *llegatu* ere bai.

²⁷ Hona xehetasunak leihatilaz leihatila: 1) Arrietan, inoiz *ama berxina* ere bai; 2) Ilurdotzen *ama berkina* ere bai; 3) Urtziko kristau-ikasbidean, *ama vergina* eta *ama virgina* ere bai; 4) Hiriberrin, *ama berkina* ere bai, eta are *birjina*, orotz baten testuinguruan: *Eúska! Erriak dauká amá bat séndoa; zéin zéna zú Birjíná Arántzasakoba* (F. Larrageta); 5) Lakabeko izkribuan, *Virgina* / *Virgina* / *Virgina* gisako aldaerak dakuskigu, azkenekoa aurreko biak baino gehiagotan; eta 6) Orotz-Berelun, *Ama Berginen*, *Ama Berginen debota*.

²⁸ Batzuetan, aldi gutxitan egia esateko, *-tera* / *-terera* bukaerako nominalizazioari egokituriko osagarri zuzenak genitiboan hartzen du, lerro honetan ikus daitekeen moduan, baina Ilurdotzen hau nekez gertatu da eta Arrietako materialerlan halakorik ez zaigu ageri.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
idieindako	aixkieindako*	arimaindako	semeindako	amaindako ²⁹	beletariaindako	amaindako	amaindako
ameka; amairu	ameka; amairu	ameka	ameka; amairu ³⁰	ameka; amairu		ameka; amairu	ameka; amairu
amets in, amesketa			bokao	amen			
			amets in	ametsketan aitu			
anaia, anaie ³¹	anaia, anaea	amorio	anaia, anaia	anaia, anaia, anaea	anai	amorio	anaya
andre, mazteki	andre, emasteki	andre, emasteki	andre, emasteki	andre, mazteki ³²	emazteki, mazteki	andre, mazteki	mazteki
animale		arima, espiritu	anima	anima, espiritu	anima, arima ³³	anima	
anitz, aunitz	anitz, aunitz	anitz, laski	animale, animale	animale ³⁴			
apa			anitz, aniz, latz	anitz, aunitz ³⁵		anitz, aunitz	aunitz
			pott	apa ³⁶			

²⁹ Hona, ‘(a)rendako’ atzikiaren ondorioz, Arrietan ditugun emaitza batzuk: *Jangó:koindako / amáindako / aitáindako / aitátsindako* eta *aurrèindako*. Pluralerako, berriz ‘-endako’ kasurako, alegia, hauek: *aitèndako / bièndako / launèndako / mediteuèndako / usueèndako / eultzeuèndako / denèndako* eta *errotzèndako*. Hiriberriin, singularrekin, diptongatu gabeko emaitzak ere bai, *jendearendako*, adibidez.

³⁰ Hiriberriin, baina, hizkeraldi askan, *ogéitamaiká*.

³¹ Ilurdotzen, zenbatzailearekin, *anai bet* eta Hiriberriin *anai bat*. Orotz-Beteluko G. Arzelusi *éne anéak* eta *anéa bat* bildu genion.

³² Hona xehetasunak leihatilaz leihatila: 1) Arrietan, *mazteki* horrez gainera, *mazte* eta *emakume*; 2) Espotzen *emasteki / mastiki* ere bai; 3) Urizko kristau-ikasbidean *emaste* ere bai; 4) Hiriberriin, *emazteki*-z gainera, *mazte / mazteki* ere bai, hiruretan ere gazt. ‘mujer’, zentzu zabalean: *mazteki lanak oék diré, bá-bai, oék diré; enéro berbérak, berbérak, bai* (F. Larrageta). Batzuetan, halere, *mazte* ‘esposa’ adierarekin aditu izan dugu; 5) Lakabeko leihatilan agertzen denari, *emakume* gehitu behar zaio; eta 6) Aita Donostiak bildu Orozko toberan *mazte / emazte* ‘mujer’ ere bai.

³³ Lakabeko testuan *arima* askoz gehiagotan *anima* baino.

³⁴ Arrietan, beste animalia bat izendatzeko, saia adibidez, gazt. ‘bicho’ hitza erabili zuen berriemaienak: *gáúzen yá... líik dogó edo, bitxo goi*.

³⁵ Hona xehetasunak leihatilaz leihatila: 1) Arrietan *aniz, anitz* eta *anix* ere bai, eta baita *ausarki* ere; 2) Ilurdotzen *anitz, aunitz* eta *asko* ere bai, azken hau *eskerrik asko* espide soilan bildu badugu ere; 3) Uritzen, honako galdera-erantzumetatik aterata: - *Nor diré misericordioso?* - *Lasqui urrialden dirénac orañic estrañoquin*. Herri honetako izkribuan, gainera, *anits / anis* aldaerak dakuski; eta 4) Orotz-Beteluko *EI* delakoan *anix* eta *asko*, eta azken hau orobat Aita Donostiaren datuetan ere.

³⁶ Gazt. ‘beso’; hona Arrietako adibidea: *áitei ta áma, emán nekó... ápa bána*. Hona Ilurdotzkoa: *emán tzió ápa bat kopétan*. Hiriberriin, ordea, *potta* eman zigan F. Larragetak, muga-tua: *katsú potta, potta... idán potta... kátsu*.

Ilurdortz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
apal, apaldu			apal	apaldu (sua)			
apez; kurandera	apez		apez, fraill(0)e; sorgin	apez, fraile; sorgin	apez	apez, abade	apez
abuelo; abuela	apixi; amitxi		apixi; amitxi	apixi; amitxi ³⁷	aithona, abuelo	apixi, aitaixi	atxi*; amitxi
ar; izintzere	txintzare		ar	ar*; txintzare ³⁸			ar
aragi; ezur	aragi; ezur		aragi; ezur	aragi; ezur			aragi; ezur
aran; gerezi; piku ³⁹	aran*		aran; gerezi; piku	aran; gerezu			
zokorro	aratze		aratze, potxolo	aratze, aratxe ⁴⁰			aratze*, tzokorro
sarazi / atrazi		eronasi	yanazi	-arazi; yanazi	ernarazi; adierazi		
arbole	arbola*		arbole, arbola	arbole		arbole	arbola
ardantz; alkiz	alkiz?			ardantz; alkiz ⁴¹			
ardi; axuri, bildots	ardi; axuri		ardi; axuri, bildots	ardi; axuri, bildots ⁴²	ardi		ardi; atsuri
ardo; ozpin	ardo	ardo	ardo; ozpin	ardo; ozpin		ardo; ozpin	ardo
area; legar ⁴³			area	area			legar
argi / itzel	argi / itzel	argi	argi, argitu / itzal	argi, argitu / itzal	argi / itzal	argi, argitu	argi* / itzal*

³⁷ Lerroan: 'abuelo' eta 'abuela', baina leihatletan agertzen ez diren beste hitz batzuk ere baditugu: Arrietan *aitatxi* eta *amatxi*, eta Hiriberrin *aitetxi* eta *amatxi*, kasu. Lakabeko lbarrak *aithona edo abueloa* idatzi zuenean; 'aitona' esan nahi izan zuen ote? Hitz hau, aditu ere, ez dugu Arzibarren sekula aditu baina Aita Eusebio Exalarkoak, Orotz-Betelun, *apixi* eta *aitatxi* horiez gainera, bildu egin zuen. Bestalde, Ilurdozko leihatilan ageri diren erdal maillekuak beste zenbat herritan ere aditu dirugu, inoiz euskal hitzekin batera; hots, Hiriberrin *abuelo*, Lakaben *abuelo* eta Orotz-Betelun *abuelo* eta *abuela*.

³⁸ Lerroan: 'gusano' eta 'lombritz'. Ilurdortzen, mugaturik, *tzintzere* eman zigituen.

³⁹ Ilurdortz eta Hiriberriko leihatletan: 'ciruela', 'cereza' eta 'higo'. Arrietan, *gerexu / gerexio* ere bai.

⁴⁰ Lerro honetan 'ternero' dugu. Ilurdortzen *tzokorro / txokorro* ere bai, tamainaren arabera, antza (Azparrenen ere *tzokorro / txokor* eman zigituen), eta Hiriberriko *potxolo* hori 4-5 hilabetekoa da S. Arboniesen arabera (A. Arana).

⁴¹ Lerroan: 'viña' eta 'podadera'.

⁴² Lerroan: 'ovejá' eta 'cordero'. Ilurdortzen, *bildots*, *cordero de un año*, *más o menos*, berriemailearen arabera.

⁴³ Ilurdozko leihatilan 'arena' eta 'grava, arenisca'. ¿*Piedra un poco cascada, rota, para hacer carreteras?* esan zuen, bere buruari galdetuz bezala, berriemaileak. Azparrenen, baina, *legárra = la arena*.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
ari, ai (izan)			ari, ai (izan)	ari, ai (izan) ⁴⁴	ari (izan)	ari (izan)	ai (izan)
ari, artzantz	artzantz		ari	ari, azantz ⁴⁵			
arie; erokatu	aria in*		aria, aria in	aria, aria in ⁴⁶			aria; erokatu
arin, zalui		arin, arinki	arin, zalui	arin, zalui ⁴⁷	zalui	arin	
aritz; bago; ezel	aritz; bago; ezel		aritz; bago; ezel	aritz; bago; ezel ⁴⁸		aritz; bago	
amõrrai	arrai		arrai(n), amõrrai	arrai, arrai ⁴⁹		arrai	amaarra? ⁵⁰
			keja, kejatu		arrankura ⁵⁰	arrankura	
arrantza, arrantzatu	arrantza		arrantzu; arrantzai ⁵¹	aran(t)zale			
arropa, arropa	tresna*		arropa, tresna	arropa, tresna ⁵²		tresna	
arrapatu, apertu ⁵³	arrapatu*		arrapatu, arrepatu	arrapatu			
arraiz; a(r)tsalde	arraiz; a(r)tsalde		arraiz; a(r)tsalde	arraiz; a(r)tsalde		arraiz	a(t)salde
			arrazoin ⁵⁴	arrazoin		arrazio	

⁴⁴ Hona Arrietako adibide-parea: *sékula enáiz áitu // an, almõrztazén ai giná, illé batekin*. Hiriberriko datuetan ere *muséan áitzen tziirén* dakusagu; Ilurdozkoetan, *orái ai dé, idiek buz-térrzen*, eta Ibarra lakabetarrak ere, bere aldetik, *jarráikatzen ari zelaik* idatzi zuen.

⁴⁵ Arrietako lagunarentzat *azán(t)za* 'mardano' zen ('abari aita', alegia) eta *aria* 'el carnero'. Ilurdozkoarentzat *arizántza* = *mardano*, *compañero de la oveja*, eta *arie kastrái* = *carnero*, *ja castrado*.

⁴⁶ Arrietako lagina *in du aria* esaldirik atera dugu, gazt. 'ha hiladó'. Aldi honetan, lerro osoan barrena, *arie / aria* hitza mugaturik damagu.

⁴⁷ Lerroan: 'ágil, pronto, ligero'.

⁴⁸ Lerroan: 'roble', 'haya' eta 'boj'.

⁴⁹ Arrietako berriemaileari *arraié*, *arrai* eta are *arrai* (hau mugaturik) aditu diogu, 'trucha' esanahiarekin. Ilurdotzen, haatik, arrain honen izen aski ezaguna aditu genuen, Hiriberriin ere mantendu zena.

⁵⁰ Lakabeko *arrankura* gazt. 'queja' dugu, eta Orotz-Beteluko 'congoja, inquietud'.

⁵¹ Hiriberriin *arantzale* ere bai, baina 'arainontzi' gisan, hots, 'amurrainak edukitzeko tresna edo ontzi moduko bat', S. Arboniesek A. Aranari adierazi bezala. Bitxi dirudi honek, baina.

⁵² Arrietan *arropa* ere bai (E), hala nola *tresena*. Ilurdotzen, *erropa* ere bai.

⁵³ Ilurdozko *apertu* honako esaldian: *parátu nituen... látxö, látxöök, eper apertzéko*. Litekena al da hor, agian, *arrapatu* > *arrapetu* > *arpetu* > *apertu* gisako garapena gauzatu izana? Hots, disimilazio, laburbilketa eta metatesia gertatu izana?

⁵⁴ Uritzzen, *arrazoinic gabe gaitzqui juzgacén duenac* baterik aterata. Arrietan ere, mugaturik, *arrazoina* eman ziguten. Orotz-Betelun *-io* bukaera dakusagu, lerroko beste herrietan agertzen ez dena, nahiz Arrietan, Hiriberriin eta Ilurdotzen, kasu, *arrazio* dugun.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
arriba	arriba; aizpa*	arriba	arriba	arriba; aizpa		arriba	
arri; plantxa?	arri	arri	arri	arri; lauz, loza ⁵⁵		arri	arri
arrikoaldi		mozkorraldi	mozkorraldi	arrikoaldiko ⁵⁶			
estrañatu			Arrieta, Arrietara ⁵⁷	Arrieta, Arrietara		Arrietako	
arroitu			arritu	arritu			
arron		arraz	arroitu, zalaparra ⁵⁸	arroitu, zalaparra ⁵⁸	arroitu	arroitu	
erausi; erausi in	agua ereki		arrosi, arrosia in	arrosi, arrosia in ⁵⁹	arrosi	arrosi	arrausi*
ertean		arteana, erteana	erteana	arteana, erteana	arteana, erteana ⁶⁰	arteana; bitarteana	
korrale			artegi, korrale	artegi, korrale			
artio, artio	artio		artio, artio, arte	artio, artio ⁶¹	artio	artio	artio
artu / uzi	artu / uzi	artu / uzi	artu / uzi	artu / uzi ⁶²	artu / uzi	artu / uzi	artu
ustel			usteldu	arxo	ustel		arxo ⁶³
artzai; moztale			artzain, ardzain	artzai(n); moztale ⁶⁴	artzai	artzai	artzai

⁵⁵ Lerro honetan: 'piedra' eta 'losa'.

⁵⁶ Arrietako hau 'harririkaldi' izan liteke, bai-eta Ilurdotzen bildurikoa ere, zertxobait desituraturik biak. Hiriberriko lagina hitzaren bukaerari begira idatzi dugu hor.

⁵⁷ Hiriberriin *Arrietara* ere bai, hala nola *Ireberriña*.

⁵⁸ Lerroan: 'ruido' eta 'alboroto'. Arrietan *garroitu* ere bai eta, mugaturik, behin bederen, *arroiñak*, Bidankozeko harako hura ($u + a = iua$) oroitaraziz.

⁵⁹ Lerroan: 'bostezat'. Arrietan honela: *gizónak arrosia iten du*. Ilurdotzen, *eráusi iten du*.

⁶⁰ Lakaben *bitarteana* ere bai, Orotz-Betelun bezala.

⁶¹ Lerro honetan: 'hasta'. Ilurdotzen, *i* baten ondotik, *e* adi daiteke: *onai ertio*, adibidez.

⁶² Lerroan: 'tomar, cogér' eta 'dejar'. Urizko 'uzi' *usteco* batetik atera dugu: *eta diligencia iten estuenac juramentuain costumbrea usteco*. Lakabeko 'artu', berriz, honako esalditik: *Artzak aurtxo goy eta eman zioek bere amai*. Aditz laguntzaile tripersonalak, datiborako, *-io-* ezaugarria darakus hemen zein beste zenbait adibidetan ere, eta ez *-ako-* gisakoa, Arrietan eta Hiriberriin bezala.

⁶³ Azparren herrixka menditsuan *sagárna ártsoa* eman ziguten ('arrak joa', antza), 'ustela' edo, alegia.

⁶⁴ Lerroan: 'pastor' eta 'esquilador'. Hiriberriko A. Usozek, lehenengo hitza mugatzean, *artzañak* eman bazuen ere, S. Arboniesek *artzaiz* eman zion Aitor Aranari: *artzaia lanian kanpoan*.

Ilurdortz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
asaratu, enfadatu ⁶⁵		asaratu	asaratu	asaratu, enfadatu			
	aspertu	aspertu		ase, asealdi ⁶⁶		aspertu	
asi / aka(ba)tu ⁶⁷	asi, abiatu / akabatu	asi / finitu	asi / finitu	asi / akabatu, finitu	asi		asi
aski; gorri; sobra	aski; franko	aski; franko	aski; franko; sobra	aski; franko; sobra ⁶⁸	aski; franko	aski; franko	
aste; ilebete, elibete	ilabete		aste; ilabete	aste; ilabete ⁶⁹	aste; ilabete	aste; ilabete, ilabete	aste
astelen; astearte	astezken	igande	astelen; astearte	astelen; astearte ⁷⁰		astelen; astearte	
asto; bior; mando	asto; bior		asto; bior; mando	asto; bior; mando ⁷¹	asto		asto; bior; mando
atari; giltze; furrillo	atari		atari; giltza ⁷²	atari; giltza; furrillo	atari; ikkorte		atari; ikkorte
atera, atra / sartu	atra	atra / sartu	atera, atra / sartu	atera, atra / sartu	atera, atra / sartu ⁷³		atera / sartu*
			aterpe, beroki		aterbe		
atorra; zipon	atorra		atorra; zipon	atorra; txipon ⁷⁴		xipon	atorra
atzo; erenegu ⁷⁵	atzo	atzo	atzo	atzo; erene(g)u		atzo	atzo*

⁶⁵ Ilurdortz honetan *koleratu* erdal mallegua ere bai.

⁶⁶ Arrietako leihatila honetan: 'hartar' eta 'hartzago'. Urtzko izkribuan *aspertuac* 'hartos/as' dugu: *Bienabentunatuac direnam justicias deseyu chusena tuenac, cein ayec izaindire aspertuac*.

⁶⁷ Ilurdortzen, *akabatu* / *akatu* horiez gainera, *mugetu* ere bai: *mugetuko dugu gaturko, lo terminaremos para hoy*.

⁶⁸ Lerroan: 'bastante, suficiente', 'abundante' eta 'demasiado'. Ilurdortzen, aurreneko silaban -i bat izanez gero, -e izaten dugu ohiki hurrengoan: *ongi éski iduri du edota négu gorki óna, ótzi kebé*. Herri honetatik hurbil, hegoaldeagoko Irotzen, 'franko' eman zioten Hipolito eta Felisa Mariñelarena anai-arrebek Javier Irigarayri, 1974an: *Lur me franko Zálbako*.

⁶⁹ Arrietan *ilbete* / *ilebete* ere bai, eta Hiriberriin *ilbete* / *ilabete*. Ilurdozko *elibete* hitzean, agian, berriemalaren zalantza edo ziurtasun eza egon liteke. Irozko datuetan dena dela, Ilurdoztik hurbil, *ilabéte* dakusagu.

⁷⁰ Arrietan, *astelena*, *asteartea*, *astiazkena*, *ortzegun*, *ortzilara* (...) eta *igande* / *iande* / *iande* / *iriande* / *idiande*. Ilurdortzen, *astelena*, *asteartea*, *asteazkena*, *ortzeune*, *ortzileria*, *larunbet* eta *igande*. Hiriberriin, *astelen*, *astearte*, *asteazken* (...) *larunbat* eta *igande* / *iende* / *éyande*. Orotz-Beteleu, azkenik, *astelen*, *astearte*, *asteazken*, *ortzegun*, *ortzilara* / *ortzileria*, *larunbata* (*idiakoitza* / *idakoitza* / *irakoitza* ere bai) eta *igande*.

⁷¹ Lerro honetako hitz ezagunetz gainera, *mule* dugu Ilurdortzen eta *mandamula* Espotzen. Hiriberriin eta Arrietan, *bior* ere bai. Lakabea *astokeria* hitzetik atera dugu.

⁷² Lerro honetan 'puerta', 'llave' eta 'pestillo, cerrojo' dugu. Orotz-Beteluko eta Azparrenko *ixkorte* (herri honetan *iskórtte* ere bai) *puerta de alambre para cerrar caminos y caminos* y *cam-pos* da, bertako berriemalle A. Bizkairen seme Luis Alberto Mugetak esan zigunez.

⁷³ Orotz-Betelun *atea* / *atenatu* bildu genion, orobat, G. Arzelusi.

⁷⁴ Lerroan: 'camisa' eta 'jubón, chaleco'. «*Zipona* gizonetzkoen koratiloa dela zehaztu du Arbonies andreak» (A. Arana).

⁷⁵ Ilurdoztarrak honela: *atzo*, *erenégu*, *laundégu*... *ayer*, *anteayer* y *el día anterior*.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
au, gau; ori, oi, gori; ure, gure	gau; goi; ura, gura	au, gau; ori; ura, gura	au, gau; ori, go(o)j; ura, gura	au, gau; ori, go(f)jura, gura ⁷⁶	au, gau; ori, goi; ura	au, gau; ori, gori*, ura	au, gau; ori, gori
alfer		aufér, ofér	aufér, ofér	aufér	alfer	aufér	
aun, aunka, aukkeru				aun, aunka ⁷⁷			
aundi	aundi, andi	andi	aundi, andi, gaitz	aundi, andi, gaitz ⁷⁸	aundi, larrí	aundi, andi, gaitz	aundi
aunditu	aunditu	amentatu	aunditu	aunditu, larritu ⁷⁹	aunditu	azi	aunditu*
auntz, akér	auntz; akér		auntz	auntz; akér ⁸⁰		auntz; antxume	auntz; antxume
aur, ume; mutiko	ume; mutiko	aur, ume	aur, ume; mutiko ⁸¹	aur, ume; mutiko	aur, ume	aur, ume; mutiko	aur
ormen			aurmen	aurmen, maskilda ⁸²			maskilda, maxkilda
aurpegi; matel		aurpegi	aurpegi	aurpegi	aurpegi	aurpegi	aurpegi
aus, autz; erraus	aus*		aus, aus; erraus	aus; erraus ⁸³			aus
autsi	autsi	autsi, autxi	autsi, xautu ⁸⁴	autsi		autsi	autsi
auzo, auzoko, bezino			auzo, barride	auzo, bezino			
azal; larru; bilo	azal*; larru; bilo		azal; larru; bilo	azal; larru; bilo ⁸⁵		bilo	azal*; larru; bilo

⁷⁶ Lerro honetako izenorde zein erakusleak maiz *g*-ekin agertzen dira; Arrietan *gau* eta *gizón gau*. Espotzen izenorde modura dugu: *gáu erre dá*; Azparrenen erakusle gisa: *nóina dá étxe gáu?* eta Lakaben *au da* dugu, alde batetik, eta *Ama edergau* bestetik.

⁷⁷ Lerroan: 'ladrido' eta 'ladrando'. Arrietan, *txakúrra... aunká úitzen dá* 'el perro está ladrando', eta Ilurdotzen ere antzera: *txakurre dagó... áunkes*.

⁷⁸ Lerroan: 'grande' eta 'enorme'. Arrietan, *larrí* ere bai. Hiriberriin *ikara* bakari bat ere bai, honela bota baitzuen L. Mendez zenak: *otzá beti, ikára ótza*. A. Aranak, bere aldetik, *ga-lant* bildu ziton S. Arboniesi eta baita Aita Donostiak Orotz-Beteluko toberan ere. Lakabeko *larrí*, kasu honetan, 'grave' izatera dator: *bekatu larrían*, adibidez.

⁷⁹ Lerroan: *gaitz*, 'crecer'; *larríu* Arrietako berriemaiileak bakarrik eman zuen. Ilurdotzen, *aunditu* *gaitz*, 'crecer' eta 'agrandar'. Orotz-Betelun *azi* dugu: *Mezkiritzen azia (EI)*.

⁸⁰ Lerroan: 'cabra' eta 'chivo'. Leihatiletan kokatzeko lekuri izan ez badugu ere, *antzame* 'cabrito' bildu dugu Ilurdotzen, eta *antxume* Espotzen eta Arrietan.

⁸¹ 'Hijo varón' galderari Hiriberriin emaniko erantzuna da *mutiko* hori kasu honetan, nahiz batzuetan adinean aurrera joandako bati buruz ere erabili den: *Eméngo mutikoa? eskóndu zén arrékin ere; gertátu zén ta, eskóndu zíren (A. Usoz)*.

⁸² Lerroan: 'manojo, gavilla'. Azparrengo A. Bizkai honela mintzatu zen: *maxkilda / maskilda... para dar de comer a las cabras; se echa en la maxadéra*.

⁸³ Lerroan: 'ceniza' (eta 'polvo?') dugu. Arrietako lagunak, 'ceniza'-rako, une batean *erraus* eta beste batean *aus* eman ziguin, bi hitzen arteko nahasmen edo zalantza-puntuaren bat erakutsiz.

⁸⁴ Hiriberriko A. Usoz mintzo: *Eta... arbolea xeatnik, abarrikatu zain dena (EAEL-II, 214. testua)*.

⁸⁵ Lerroan: 'pellejo', 'piel' eta 'pelo'. Hitza mugatzean, Hiriberri, Arrieta eta Orotz-Betelun *bilao* dugu; Ilurdotz, Espotz eta Azparrenen *bilao* zein *bilua*.

Ilurdotz	Espoz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
azi; pikor	azi; bikor		azi; bikor	azi; bikor ⁸⁶		garau	azi*
azken	azken	azken	azken	azken, asken	azken	azken, atzen	
azkon; burtxintze			azkon; muxar ⁸⁷	azkon?			burtxintxa; muxar
azpi; zango; aztal	azpi?; zango		azpi; zango; anka	azpi; zango; anka ⁸⁸		zango; anka*	zango; anka?
baiez; batez / ezetz			badu egun urte	badu zenbait urte	orai du laur egun		
bakar, bakarririk	bakarririk	bakar, solamente	bakar, bakarririk	bakar, bakarririk ⁸⁹	bakarririk	bakarririk	bakarririk
paze / gerra		bake	bake / gerra	bake / gerra		gera	
bakorx, bakar		bakorx, bakoitx	bakorx	bakorx ⁹⁰		bakoitz, bakorx	
barin, badin bezue		balin bada	balin bada	balin bada ⁹¹		bada	bada
balio izan		baliatu, aprobetxatu	balio (izan)	balio izan			
bana				bana; scira; zazpita ⁹²		bana; scira; zazpita	
baña, baño		baña, baño	baña, bata, baño	baña, beña, baño ⁹³		baña	baña
baño, beño	baño	baño, ezi	baño, ezik	baño ⁹⁴		baño, baña	baño

⁸⁶ Lerroan: 'semilla, simiente' eta 'grano'. Ilurdotzen *pikor ez* da zituren baten alea bakarririk, larruazalean atera ohi den pikorta ere bai baizik: *pikor bat baut zornekin*. Orotz-Beteluko hitzak, azkenik, kanpokoa izatearen itxura du agian.

⁸⁷ Leihatila honetan: 'tejon' eta 'lirón'. Hiriberri *azkonar* / *azkonarro* ere bai, azken honi erdal generoa erantsita. Ilurdotzen eta Azparrenen *burtxintxa* 'ardilla' bildu da.

⁸⁸ Lerroan: 'pierna', 'pie' eta 'nalgá'. Hiriberri, *aztal* 'talón' ere bai, Ilurdotzen bezala, eta herri honetan, halaber, *anka* 'pata': *austi zio ánka*, eta *sola* 'planta del pie' ere. Orotzko lagina *EL-n* ageri diren bertso batzuetatik atera dugu: *Petiri Zanga gorria*.

⁸⁹ Lerroan: 'único' eta 'sólo'. Hona Arrietan bildua: 1) *eskopéta, káño bakárrekóá*; eta, 2) *kargánu zúé polbónas bakárrik*. Urizko izkribuan honako adibidea dugu: *Jesucristo aren seme Jaun bacarráin baitan*.

⁹⁰ Arrietan honela: *bakótsak bére sáskiek edota máisa bakótsak bére izéna*.

⁹¹ Arrietan, batzuetan, *balimada* ere bai.

⁹² Lerro honetako bi herritan bakarririk, Arrietan eta Orotz-Betelun, 'a cada uno', 'a cada seis' eta 'a cada siete' dugu. Ilurdotzko *bana* bakartia, *i* baten ondotik, 'bena': *ogi bena*.

⁹³ Lerroan 'pero, mas' dugu, aldaeraren batek besterik pentsarazi badezake ere. Ilurdotzen *beña* / *beño* ere bai, haien aurreko silaban *i* edo *u* bat izanez gero.

⁹⁴ Lerro honetan, bertiz, erkaketarako 'baino' dugu. Hiriberri, gainera, *ezik* bildu genuen A. Usozen ahotik: *ené gezúrta, naiágo zilla, ezik beré... egtak? dénak, déna paño*.

Ilurdotz	Espoz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
baratze; ertsi			baratze; esi	baratze; esi ⁹⁵		baratze	baratze; ertsi*
baraxuri; tipule			baraxuri; tipula	baraxuri; tipula		tipula	
barkatu		barkatu	barkatu	barkatu			
barkazio		barkazio, barkamendu		barkazio		barkamendu	
barne, barna*			barena	barna ⁹⁶			
barren, barne / kanpo	barne / kanpo	kanpo, landa	barne / kanpo	barne / kanpo	barne	barne, barren / kanpo	barne* / kanpo
barratu			zabaldu	barratu, edatu ⁹⁷		zabaldu	
baru	baru*	baru, barutu	baru	baru			
basta, txalma	baste, txalma		basta	basta, jalma			txalma, jalma-montura
uli aundi bet		debozio andi bat	aire gaixto bat	bat: dorre aundi bat ⁹⁸	erioze on bat		
batean				batean ⁹⁹		batean	
bateyo, bateiatu ¹⁰⁰		batayo, batayatu	bateo	bateo		bateo	bateo
batzuk, batzuek ¹⁰¹	batzuik	batzuk	batzarre	batzarre			
bazkari; almortzu	bazkari	bazkari	batzuk, batzu	batzuk, batzuek	batzuek	batzuk	batzuk*
baztar	bazterreko		bazter	bazkari; almortzu ¹⁰²		bazkari; aldamortzu	bazkari
				bazter ¹⁰³	baztertu	bazter	bazterreko

⁹⁵ Lerroan: 'huerto' eta 'seto': *alórna... ésis... érsi du* esan zuen Arrietako berriemaileak.

⁹⁶ Lerro honetan: 'a través de'. Hitz hau, Hiriberrin, kantu triki baten baitan txertaturik egoteagatik geratu zaigu, antza, laburu gabe, inguruko herrietan ez bezala: *Usos, Muñain, Lakabe, Gorraizati(k) barrena...* (A. Usoz).

⁹⁷ Lerro honetan: 'éxtender, esparcir'. Arrietan, *esparbatu* ere bai. Orotz-Beteluko hitza *EL*-tik hartu dugu, bere esanahia bestelakoa izan daitekeen arren, ez baitago zehazturik. Lerro honetara ohiko esamoldeak ekarri badiugu ere, batzuetan *bat* zenbatzailea adjektiboaren aurrera igarota dakusagu: *etxe bat aundie* Ilurdotzen; *lan bat ederra* Hiriberrin; *etzi bat ederra* Arrietan; eta *alába bít óna* Azparrenen, kasu.

⁹⁸ *Gazt. 'a la vez'*. Ilurdozko berriemaileari galdetu genion: *Bateo ¿no? - No, batáin*, izan zen erantzuna.

⁹⁹ *Gazt. 'a la vez'*. Ilurdozko berriemaileari galdetu genion: *Bateo ¿no? - No, batáin*, izan zen erantzuna.

¹⁰⁰ Ilurdotzen eta Uritzen: 'bautizo' eta 'bautizar'. Uritzen *bataytu* ere bai.

¹⁰¹ Ilurdotzen eta Uritzen: 'bautizo' eta 'bautizar'. Uritzen *bataytu* ere bai. Elkanoko Lizarragak *batzuk* iragangaitzean eta *batzuek* iragankorrekun zerabilen.

¹⁰² Arrietan *alámortzu* ere bai (*EL*), eta baita *amarretako* ere.

¹⁰³ Lerro honetako sustraian *bazter* 'rincón, orilla' bada ere, Espoz eta Azparrengo *bazterreko* horiek besterik dira, 'tronco extremo', alegia.

Ilurdor	Espoz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
bea, biar		bea, biar, bar, ber	bea, biar	bea, biar	bea	bea, biar	bea
bedeikatu ¹⁰⁴		bedeikatu	bedeikatu	bedeikatu	benedikatu		
bederatzi, bediatzi	bederatzi	bederatzi, bediatzi	bederatzi, bediatzi	bederatzi, bediatzi	bederatzi	bederatzi	bederatzi, bediatzi
begi; biarri; sudur	begi; beari; sudur	begi; beari; sudur	begi; beari; sudur	begi; biarri; sudur ¹⁰⁵	begi; beari	begi; begari; sudur	begi; biarri*, sudur
bein; bein bet	bein; bein eta geyagos	bein	bein	bein; bein bates ¹⁰⁶	bein	bein	
miretu		bede, beira, so	bede, beira, so	be(g)iratu, miratu ¹⁰⁷	beiratu, zaitu	begiratu; zaindu	
pekatari		pekatari, pekatari		pekatari	pekatari, pekatari		pekatari
bekatu, oben, kulpe		bekatu, pekatu, kulpa	pekatu	bekatu, oben, kulpa	bekatu, pekatu	bekatu	
belar; asun	belar		belar; asun	belar; axun, axun ¹⁰⁸		belar	belar; axun
belau	belau		belau; belauriko	belau; belauriko			belau
beldur; lorsa		beldur	beldur; lorsa	beldur; bildur, lorsa	bildur	beldur	
lorsatu			lorsatu	beldurru, lo(t)satu ¹⁰⁹		lorsatu	
kolazio		bendizio	bendizio	bendizona ¹¹⁰			

¹⁰⁴ Lerro honetan 'bendecir' mailegu-hitza dugu. Ilurdorzen *bedeinkatu / bedeinketu / benediketu* ere bai.

¹⁰⁵ *Biarri* era diptongatua Hiriberri ere bildu da.

¹⁰⁶ Arrietako berriemaileak *bein* eta *alddi*, biak erabili ohi zituen: *béin batés / béin batés* edota *alddi batés / alddi batés*. Ilurdorzen, *bertze bein* ere bai, aldi bakar batez baina.

¹⁰⁷ Lerro honetan gazt. 'cuidar, proteger, mirar' dugu, zehaztasunak zehaztasun; Arrieta honetan, *kuidatu* ere bai (*Ed*). Hiriberri, oroitzen baten testuinguruan, honela: *guarda eta beida zaizten eskarmento gaxto guziti* (P. Larrageta), eta *so* ere bai: *áire só, áire sóan égon nitzén ni bí údaz* (A. Usoz). Herri honetan, halaber, *begiratu* eta *kuidatu* bildu da. Lakaben, azkenik, *beida(tu)* aldaera ere bada: *beidazala*.

¹⁰⁸ Lerroan: 'hierba' eta 'ortiga'. Eta hurrengoan, 'rodilla' eta 'de rodillas, arrodillado'.

¹⁰⁹ *Beldur(tu)* eta *lorsatu(tu)* hitzek antzeko esanahia badute ere, Ilurdorzen *lorsatu* 'espanta' eman zituten: *tzórien lorsátzeko, tzóriek lorsátzekó, o sea, pa espantiar pijaros*. Azkenik, *El-n daku-sagun Orotz-Beteluko lorsaturik* gazt. 'estupo' hitzari emaniko erantzuna da.

¹¹⁰ *-ión* bukaerako mailegu-hitzek *-zio* zein *-zione* egiten dute herri hautetan. 1) Ilurdorzen, *debozio, kolazio, kombertsazio, obligazio, operazio, orazio, prozesio* eta *tenutazio*. Ez dugu ia *-ione* bukaeradunik ikusten, *kontribuzionia* edo *kenduta*; 2) Uritzko kristau-ikasbidean, *colacio, conrricio, arrecio, devocio, inclinacio, obligacio, ocaseo, tenuacio...* baina *atençione, comunione* eta *pasio / pasione*. 3) Hiriberri, *obligazio, prozesio, telebisio, orazio / oraziõne, afiziõne, afiziõne, obliçazio, oraziõ, direziõ, obliçazio, oraziõ, afiziõne, inyekeziõne, okasiõne, prozesiõne, bendiziõne*; eta 5) Lakaben, *diversiõ, tenutazio, ocaseo, tenutazio, pasiõne* eta *procesiõ / proçesiõne*.

Ilurdotz	Espoz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azaparren
bera, beda		bera, gauza bera	bera, berbera	bera	berbera	bera	bera*
			berant	berant, beransko			
igual, igualmen	igual, igualki	igual, igualki	berdin, igual	berdin, igual, igualki			igualki
bere; arren, aren ¹¹¹		bere; arren, aren	bere; aren	bere; arren, aren	bere; aren	bere; aren	
berla, beala, abiat ¹¹²		beala	beriala, beala	beriala, beala	beala		
sukeldean berean			ortxe berean	beretan: an berean	egun berean		
aparte		berexi, berxi ¹¹³		berexi, berxi, aparte			
bero / otz / epel	bero / otz		bero / otz / epel	bero / otz	otz	otz	bero / otz
berregun, berreun	berreun		berregun, berreun ¹¹⁴	berregun			
berri	berri		berri, berritu	berri			
berri, berriz	berri		berri, berritu	berri, berris		berri	berri
bertze; ainbertze		bertze; ainbertze	bertze; ainbertze ¹¹⁵	bertze; ainbertze	bertze; ainbertze	bertze	
bertzelaz, ezteren			bertzenaz, ezperen	bertzenaz, bertzenas ¹¹⁶			
bezko; tupin ¹¹⁷	tupin			berzko, bezko; tupin		bexko	tupin
beso; besape	beso		beso; besape	beso	beso	beso	beso*
bezitu		bezitu	bezitu	bezitu, bezititu		bezititu	
bete / uts	bete / uts	bete	bete / uts, ustu	bete / uts	bete / ustu	bete / uts	bete / uts

¹¹¹ Ilurdotzen *arren* gehiago *aren* baino, eta Arrietan guztiz alderantziz. Azken herri honetan, batzuetan, izen baten ondortik ohiki, *garen* ere bai.

¹¹² Berriemalle ilurdoztarren arabera, *abiat* 'enseguida' da, eta *beala* 'luego, un poco más tarde'.

¹¹³ Hona Uritzko izkribuan idatzirikoa: *Eta particebada ostia ó veresten bada calicean dagona, pericen ó bertzen da Jesucristo?*

¹¹⁴ Hiriberrin *bieun* ere bai.

¹¹⁵ Hiriberrin *beste*, *bestze* eta *bestze* gisako aldaerak bildu ziren, eta baita *ainbeste* ere, baina, dirudienez, halakoak herritik kanpo entzun eta bereganatu zituen A. Usoz zenak. Usozko leihatilako *bertze* / *ainbertze* bikotea guk geuk oraingo moldeetara ekarri dugu, eta berdin jokatu dugu beste zenbait hitzekin ere, guztiz asmatu izanaz ziurtasun osoa ez izan arren. Lakabeiko izkribuan, azkenik, *ainbertze* eta *ainbeste* ere bai.

¹¹⁶ Arrietan *bestenas* ere bai, eta Hiriberrin *bertzela*. Bi herri hauexetan, gainera, *sorik* (gazt. 'por lo menos'), hemendik kanpora ere, Esteribar-Erroibarren eta Aezkoa aldean, gutxie-nez (azken honetan *saurrik* aditu dugu), aski ezaguna.

¹¹⁷ Lerro honetan: 'caldero, caldera' eta 'marmita'. Eta, hurrengoan, 'brazo' eta 'sobaco'.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
		kunplitu	bete, kunplitu	bete, kunplitu			
bezein, adine		bezanbat	bezain	bezain, bezein ¹¹⁸			
bezala	bezala	bezala	bezala	bezala	bezala, besala	bezala	
baizik, ezik		baizik, baizik ¹¹⁹	ezik	bezik*	baizik		
bezpera			bezpera	bezpera			
bi, bide; pare	bi, bida	bi	bi, bida; pare	bi, bida; pare		bi, bida	bi, bida
biaje			biaje	biaje	bidaldi ¹²⁰		
biar; etzi	biar, bier		biar; etzi	biar; etzi		biar; etzi	biar; etzi
			arreatuikako ardia	biarekako gauza			
bigarren, bigeren	bigarren		biarren, bigarren	bigarren		bigarren	bigarren*
bilatu / opatu			bilatu / topatu	bilatu / topatu ¹²¹	billau / opatu	bilatu / arkitu	bilatu
bildu, junteru, apiletu	bildu		bildu	bildu, juntatu, unitu	bildu	bildu	bildu, juntatu
biotz; errai, pulmon	biotz*		biotz; alsai, pulmon	biotz; errai, alsai ¹²²	biotz	biotz; errai	pulmone?
biremon, birenen			biramón	biramón, biremun ¹²³			
bisite, bisitetu		bisitatu	bisita, bisitatu	bisita, bisita in			
			bizar	bizar, bizarzu		bizarstu	
bizi, bizitu; bizitze		bizi; bizitza	bizi	bizi, bizitu	bizi, bizitu	bizi; bizitza, bizitze	

¹¹⁸ Arrietan *besain* ohikoagoa da *bezein* baino eta *bezaan* ere aditu dugu. Uritzko kristau-ikasbidean *vezanbates*, *vezambates* zein *vezambatez* dakusagu. Eta Ilurdotzen, *zuei adine* ('tan-to como a vosotros' batetik aterata), eta *arine* aldaera ere bai.

¹¹⁹ Uritzko izkribuan *-ican* bukaeraduna ere bai, behin bederen, inguru hauetan zinez bitxia bada ere: *Cerengatic obra onac binac vecatu mortalean estire meritoriac ez satisfatoreac vaitsican interpretatorio rioac (sic)*... Hiriberriin *ezik* bildu genuen; hona adibidea: *ezik bát ezik, bat, mutiko, mutiko bát* (L. Méndez).

¹²⁰ Hona Azkuek bere hiztegian dioena: «Bidalidi (AN, B, G, ms-Lond.) *caminata* : *promenade, marche*. Bidalidi on, *buen viaje, von voyage*».

¹²¹ Lerroan: 'buscar', 'hallar, encontrar'... dugu, inguru honetan guztian –beste zenbait lekutan bezala, bidenabar esanda–, kontzeptuak maiz nahasirik agertzen badira ere. Arrietan *billatu* ere bai, eta Azparrenen, 'buscar' eta 'hallar', biak berdin, honako esaldian: *ta gure artzaia fan da aru, fan da bila, ta ezta bilatu. Orotz-Betelun, bilatu 'encontrar'*.

¹²² Lerroan: 'corazón' eta 'viscera, pulmón'.

¹²³ Arrietan honako aldaerak ere bildu genituen: *bidemon / bide mun / bidarmon*.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
bizker	bizkar		bizkar, bizkar	bizkar ¹²⁴	bizkar	bizkar*	bizkar*
bizkerlarri; xaka	xaka; txamarreta			bizkerlarri, zamairro ¹²⁵			
biztu, bistu / izeldu	bistu (piztuera)		biztu, bistu / itzali	biztu/ itzali ¹²⁶	itzali		biztu / itzali, izerki
bolatu	bolatu		bolatu	bolatu, goratu ¹²⁷			eggar* (fan)
borda	kaserio		borda; bordalde	borda; bordalde			
borondate	borondate		borondate	borondate ¹²⁸	borondate		
bortz, borz; zortzi	bortz; zortzi		bortz, borz; zortzi ¹²⁹	bortz; zortzi		bortz; zortzi	bortz, borz; zortzi
bota, tiratu	bota		bota, botatu, tiratu	bota, botatu, tiratu		bota, botatu	bota, botatu
bueltaka	bueltaka ¹³⁰		bueltaka	buelta, bueltaka			
bular; soini; lepo	lepo		bular; soini; lepo	bular; soini; lepo ¹³¹	altzo	soini	bular; lepo
bulketu	bulketu		bulketu	bulketu			bulketu
buluzi	buluzik*		buluzi; buluxi	buluzi, buluxi		buluz...	buluzi
burdine; ferratu ¹³³	burdiñe; ferratu		burdina, burdiña	burdina, burdiña		burdina	burriña*
buru	buru	buru; kopeta	buru; kopeta	buru, kasko		buru; kopeta	buru

¹²⁴ Lerro honetan esanahi desberdinak ditugu; hots, Arrietan *bizkar* 'espalda' bada ere, Hiriberrin, horretarako bai, *bizkar* eman ziguten, baina *bizkar* 'colina' gisa edo. Lakabeko sermoian *bizkartzeko* hitza dugu, 'babesteko' esanahiaz, antza. Eta Orotz-Betelun, azkenik, *bizkar* 'hombro' eman ziguten (G. Arzelus).

¹²⁵ Lerroan: *bizkerlarri* 'espaldero', *xaka* 'chaqueta' eta *txamarreta* 'zamarra', hau Arrietan emanikoaren antzera. Ilurdotzen, bestalde, *izaka* / *zaka* / *saka* aldaerak bildu genituen, hakoan tamainaren arabera, antza.

¹²⁶ Lerroan: 'encender' eta 'apagar'. Arrieta honetan *bistu* eta *bixtu* ere bai; Hiriberrin *itzeli* / *itzeldu*, eta Ilurdotzen *bixtu* eta *itzeli*, azken hau geuk lagunduta.

¹²⁷ Lerroan: 'volar'. Arrietan dakusagun *goratu* hori oso zabaldurik ez badago ere, Burundako Bakaikun zera bildurik gaude: *gora ibiltzen dok / gora fan dek bolakan*.

¹²⁸ Mailegu-hitz hau ('voluntad') lagun batzuek 'bondad' delakoarekin nahasteko joera izan dute.

¹²⁹ Hiriberrin, halaber, *bost* bildurik gaude, lehenago ere iruzkindu beste kasuren batean adierazi bezala.

¹³⁰ Urizko adibide honetan 'aldi' esanahiaz: *mediatu buelta vates veneficio indiguetan*.

¹³¹ Lerroan: 'pecho', 'cuerpo, hombro' eta 'cuello'. Lakabeko *altzo* horrek, aldiz, 'regazo' dirudi: *Oh doatsua eta zorionekoa Ama Virginiaren altzoan itzlea erdexten duenal*.

¹³² Urizko izkribuan *bulien* agertzen da, baina gero oso garbi ez dagoen zerba itzitaon hitzari, 'buluzien' gisa uzteko asmoz, behar bada. Orotz-Beteluko inkestan (*EeN*) *buzkurrian / buluzkurrian* 'desnudo'.

¹³³ Lerro honetako Ilurdotzen eta Espotzen 'hierro' eta 'herra' dugu. Ilurdotzen *burdiña* eta *burriña* ere bai.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
gerren, kerren	burtxin		burtxin; gerren	burtzin; gerren ¹³⁴			gerren
busti / idortu, eiaru			busti / sekatu	busti / idortu		busti	
putzu, pozu	buzua		buzua, putzu, puusu	buzua, puuzu ¹³⁵		buttu	puzu; arbuxu
buzterri; fale			uztarri; fale	buztarri; fale ¹³⁶			
buztin; loi	bustin		buztin; loi	buztin; loi ¹³⁷		loi	buztin
		daño	daño, daño	daño, txandrio			
bat(e)re; ja, jat ¹³⁸	ja	daus / ezdaus	daus, deus, ja	daus, batere, batre		deus, daus	ja
			defendatu	defenditu			
deitu; nonbratu	deitu	deitu	deitu; aipatu	deitu; nonbratu		deitu	
		demonio	demonio, diabru	demonio, diabru ¹³⁹			
denbora	denbora	denbora	denbora, asti	denbora, tenore ¹⁴⁰		garai	denbora
urtu	ur in		urtu	desin ¹⁴¹			urtu*
			despeitu	despeitu			
dibertitu			dibertitu			dibersio	

¹³⁴ Lerro honetara burdinazko tresna pare bat ekarri dugu: Arrietan, mugaturik, *burzina* eta Espotzen, *burtxin*, *una palica pa enredar el fuego* dela esan ziguten. Hemendik ez oso urrun, Olabarko Olaitz herrixkan zehazki, lanabes honen nolokotasuna hobeki zehaztu zuen Jose Mari Makiriain zenak: *burtxin / burtzine = el hierro para remover el fuego: beñiko ezki-ne burdine te góitiko ezkiñe letóna*. Bigarren hitza, *berriz*, *gerren* alegia, ‘espedo, asador de hierro’ da. Ilurdozen gertatu moduan, Arrietan ere *gerren / kerren* aldaerak bildu genituen.

¹³⁵ *Butzu* askotan aditu genion esaten berriemaile arrietarrari; *putzu*, behin bakarrik. Azparrenen *arbuxu* eman ziguten hitz-elkarketan, izen soila aipatzean *putzu* emanik ere. Orotz-Beteluko *EeN* delakoan *butrukua* dakusagu (‘el pocico’, ‘la charca’, antza), ‘burzu’ hitzaren xumegari gisa gure ustez.

¹³⁶ Lerroan: ‘yugo’ eta ‘esquila’. Ilurdozen, *idietn, beñin...* *fálea* eman ziguten, alde batetik, eta *faleñin mie*, ‘el badajo’, bestetik.

¹³⁷ Lerroan: ‘arcilla’ eta ‘lodo, fango’. Arrietan, mugaturik, *loea* eman ziguten. Orotz-Betelun *loia / loya* gazt. ‘charca’ bildu zen, baina baita *loes zikindu* ‘ensuciar, enlodar’ ere (E).

¹³⁸ Ilurdozko lagunari, leihatilan idatzirikoez gainera, *gai* eta *yai* aldaerak aditu dizkiogu inoiz. Hiriberrin *yau*s aldaera ere bai, eta are *batre / bate* zein *xu* bitxia behin: *estakit nik xurik*. A. Aranak bildu legez.

¹³⁹ Arrietan inoiz, mugatzean, *-ia* ere bai: *diábriekín pártte bálimádu...*

¹⁴⁰ Arrietako berriemaileak era laburuu erabili zuen halako batean: *orñi, denbrá orrekin, etsaitela juan*, eta, Lakabeko *garai* horrek ere denborarekin zerikusia duela iruditzen zaigu: *Kalvarioko egun agurgarrian semezatuaak alaitu zaizte zñez, zeryatik zuen bici guziko garayetan izain duzie Ama mattagarriaren laguntza*.

¹⁴¹ Lerro honetan, oro har, ‘derretir’ dugu, Arrietakoa hori bainoago ‘deshacer’ bada ere.

Ilurdotz	Espoz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
tzilintzen			dilingan, txilintxan	dilingan			
diru; maldi	diru		diru; sos; xox; peza	diru; sos; peza ¹⁴²	diru		
ebaki		doktrina, dotrina	doktrina, dotrina	dotrina, dotrina			ebaki
ebek, eguek, augek	ebek	ebatsi	ebaki, korratu	ebaki			ebaki
ebetan*	ebek	ebetan, ebetaik	ebatsi	ebatsi	ebek	ebek	ebatsi
edan, eran	edan, eran	edan	ebek, abek, auk ¹⁴³	ebek, abek	eben		ebek
eder, polit, propi ¹⁴⁵	polit	eder, ebetaik	ebetaik, etaik	ebetan, ebetaik ¹⁴⁴	edan	edan	edan
edo, ero, oro		edo, ero	eder, polit, polit	eder, polit	eder, propi	eder, polit	polit, propi
erozein		erozein	edo, eo	edo, eo ¹⁴⁶	edo	edo, o	
egia, egie		egia; egiaski	edozein	edozein, erozein ¹⁴⁷	edozein		
in	ein, in	egin, in, ejiikutatu	egia	egia ¹⁴⁸	egi, egi; zinez	eia, egiya, egia	in / abarrikatu
egun, gaur	egon, con	egon	egin, ein, in / desin	egin / desegin ¹⁴⁹	egin	egin, ein, in	egon
	egu, gaur		egon, con	egon, con	egon	egu, egun, gaur	egu

¹⁴² Arrietan *duro* eta *zortziko* ere bai, garai desberdinetako txanponen izenak. Ilurdotzen *maidai* 'maravedi' aldaera ere bai, bitxia agian.

¹⁴³ Hiriberrin, inoiz, *gauek* / *guek* ere bai, izen bati loturik ohiki. Ilurdoko leihatilan ageri diren *oguek* / *auguek* horiek benetan bixtiak dira.

¹⁴⁴ Arrietan *auetaik* eta *abetaik* ere aditu izan dugu inoiz, ohikoa izan ez arren.

¹⁴⁵ Agian fr. 'proprietik (gazt. aseado, limpio)'. Lakabeko predikuan ere agertzen da, baina ez dakigu zehazki esanahi berbera duen: *Yrudi edo figura denen artean opatzen dituen or-tanako propienu da Eregen libru laugarrena condatzzen diguna*.

¹⁴⁶ Aurkaritzako 'alarik ez dugu ikusten saio honek barne hartzen duen esparruan; Urizko izkribuan *eguiá den ero ez?* dakusagu eta Arrietan zein Ilurdotzen *egia zen edo gezurra* bil-duririk gaude, besteak beste.

¹⁴⁷ Arrietan *erozein* mairago, agian, *edozein* baino. Lakabeko izkribuko *edozeinek*in hitzean, *ñ-a* agerian dugu berriro ere.

¹⁴⁸ Lerro honetan '(la) verdad' dugu. Orotz-Beteluko *EI* delakoan *eia* eta *egiya*, biak bitxi xamarrak, gure ustez.

¹⁴⁹ Arrietan ere, Hiriberrin bezala, baditugu era laburuak: *ein / in* alde batetik, eta *desin* bestetik. Azparrango *abarrikatu* hori 'deshacer, destrozar (el pedrisco)' dela esan ziguten.

¹⁵⁰ Gaztelaniazko 'hoý dugu lerro honetan, nahiz Arrietako berriemaitak, inoiz, *gaur* hitza 'esta noche' adierazteko erabili zuen. Eta hau ez heiri horretan bakarrik, Espotzen ere *etó-rriko da gáur* ('esta noche') eman baitziguten.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azaparren
eguarri, egoarri			eguerri				
egun, eun / gau	egun	eguerdi egun / gau	eguerdi; gabardi egun, eun / gau	eguerdi; gabardi egun / gau ¹⁵¹	egun / gau egun; mille	eguerdi; gabardi egun, eun / gau mila	egun / gau mila
egun; mile	eun; mila, mile		egun; mila, milla	egun; mila	egunero		egunero
egunero, eguneroko		egunero, eguneroko ¹⁵²	eunero, egunorosko	egunero, egunosko	egunero		egunero
igitte, igitzi; sega	itai; segadera; talla		e(ɡ)itai; tallu, talla	(e)itai; egite; tallu ¹⁵³		egitai	segadera; talla, dalla
eizi, aizi	eiza*		eizi; eizteri	eizi; izitari		kaza	
ekarri, karri, kar ¹⁵⁴	ekarri		ekarri, karri	ekarri, karri		ekarri	ekarri
kendu		ekendu	ekendu, kendu	ekendu, kendu ¹⁵⁵		kendu	
eldu, etorzen	eldu	eldu	eldu	eldu, etorzen ¹⁵⁶		eldu, datorren	eldu
elize; meza		eliza; meza, mesa	eliza; meza; ezkila	eliza; meza; ezkila ¹⁵⁷	eliza; meza	eliza; meza	eliza
elkar, elkarrekin	elkarrekin, elkarreki	elkarren artean	elkar, elkarreki(n)	elkar, elkarrekin ¹⁵⁸		elkar	elkarrekin
elle, ella; kuruxe	ele; kurixa		elle, artilla; kureixa	elle; kuresa ¹⁵⁹		ile; kurexa	elle*, ele*
elleba	elleba		elleba, illeba	elleba, ille ¹⁶⁰			
eltze; kazola	eltze*, kazola		eltze; kazola	eltze; kazola		eltze	eltze

¹⁵¹ *Gau* eta *gaba*, hau mugaturik, bildurik gaude Arrietan, Hiriberrin eta Ilurdotzen. Uritzko izkribuan ere gauza bera dugu eta Orotzen, hala *Orraigi* baladan nola *EI* delakoan, gisa bereko emaitzak dakuskiugu.

¹⁵² Uritzten *eguneroko* ere bai.

¹⁵³ Lerroan: 'hoz' eta 'guadaña'. Arrietan, 'segador' adierazteko, *eitarria*. Eta, *tallu-z* gainera, *talla* ere bai. Hego-Esteribarko Irotzen ere, *tallue* 'la guadaña'.

¹⁵⁴ Ilurdotzen, besteak beste, *nik kar nuén* ere bai.

¹⁵⁵ Arrietan *ekendu* askoz ere gehiagotan dugu *kendu* baino.

¹⁵⁶ Gazt. '(el) viene' adierazteko 'heldu da' zein 'etorzen da (orain)' dugu, ohiki, herri hautetan. Baldin Orotz-Beteluko *datorren* hori (*EI*), fidagarria bada, ez da gure egunotara iritsi, Arrietan *atoste* moduko aginterako adizki trinko batzuk aditu baditugu ere.

¹⁵⁷ Arrietan, inoiz, *eskila* ere bai.

¹⁵⁸ Arrietan, *EI* delakoan, *alkar ikusiko dugu*.

¹⁵⁹ Lerroan: 'lana' eta 'jera(s)'. Ilurdotzen, *kurixe / kurize* ere bai, eta Espotzen *arkurixak* ardici ilea mozteko modukoak.

¹⁶⁰ Leiharila honetako bi hitzak, bata zein bestea, gazt. 'sobrino/a' da.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Berelu	Azparren
eman, man	eman	eman	eman, man	eman, man ¹⁶¹	eman	eman; man	eman, man
eman dira yatera	xatera ematea			eman dira yatera ¹⁶²			
emendik; andik	emendik	andik	emendik; ordik; andik	emendik; ordik; andik ¹⁶³	ortik	emendik; ortik	emendik
emengo; orko; ango			emengo; orgo; ango	emengo; orgo; ango	emengo	emengo	
entendatu, entenditu		entendatu, entenditu	entenditu	entendatu ¹⁶⁴			
abil			entregu, trebe	entregu, trebe ¹⁶⁵			
eper; inare, inere	eper		minare	eper; minare ¹⁶⁶			niñare
ibili, ibeli, erabili	ibili	ibili	ibili, ebili	era(b)ili, ereb(i) ¹⁶⁷		ibili	
usetu	usatu	usatu	usatu	erabili, erali			
erakusi*	erakusi	erakusi	erakusi	erakusi, irakusi ¹⁶⁸	erakusi		
eman, man	eman	eman	eraman, ereman, eman	eraman, eman, man	eman	eraman, eman, man	eman
eraunsi / aterdu			eraunsi	eraunsi / atertu ¹⁶⁹			
erbi; basurde	erbi		erbi; basurde	erbi; basurde			erbi*; basurde

¹⁶¹ Ia herri guztietan, aferesia dela eta, *man* izan ohi dugu maiz, *eman* baino gehiagotan gainera. Lakaben, geroaldirako, *emanen* dakusagu, baina hau era literarioa da, hizketaldian sekula aditu ez duguna. Horretarako, *emain / main* izan dira ohikoena.

¹⁶² Arrietako leihatila honetan ‘eman dir’ dugu eta Ilurdotzen ere gauza bera. Esaldi hau *yatera* hori kontuan izanik ekarri dugu hona, interesgarria delakoan.

¹⁶³ Arrietan *andi* ere bai eta Hiriberri *emendi, ori* eta *andi*. Lakabeko lagina, berriz, testuinguru desegoki batean: *Iduritzen zaida urrikatasunean alqui ortik Ama Virgiñak nik erru-nak erraten dizicela*.

¹⁶⁴ Arrietan, Hiriberri, Uritzen eta Ilurdotzen, *kompenditu* ere bai.

¹⁶⁵ Lerro honetan: ‘esforzado, diligente’ eta ‘hábil, habilidoso’. Ilurdotzen, mugaturik, *abile* edota *abile*.

¹⁶⁶ Lerroan: ‘perdi’ eta ‘golondrina’. Arrietan eta Azparrenen azken izen honekiko zalantzak izan bazituzten ere, azkenean ‘vencejo’ dela esan zigtuten. Hiriberri, aldiz, ‘murciélago’ gisa bildu zen.

¹⁶⁷ Lerro honetara *ibili* ekarri dugu, ‘andar’ alegia, herri hauetan maiz lerroko leihatiletan ikus daitekeen moduan erabilia. Uritzen ‘kaminatu’ ere bai, aditz iragankorarekin gainera: *camina dezazun senda chutsenetik cein vaitire mandamentuac...* eta Hiriberri ere antzera, aditz iragankorarekin, ‘erabili’ moduan: *ibiltzen ginziténak*.

¹⁶⁸ Lerroan: ‘enseñar’ eta ‘mostrar’, biak ere aski nahasirik, adibide desberdinen arabera.

¹⁶⁹ Lerroan: ‘borrasca fuerte, tempestad’ (honela adierazi zigtuten Ilurdotzen) eta ‘escampar’. J. Irigarayk Irotzen bildu ahapaldietan ‘iaunzi’ dakusagu: *Élkanóko zelátetan bótarzén-zuen iaínziá*.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
erdi; erdizke / oso	erdi	erditu / oso	erdi; erribana / oso	erdi; erdizka / oso			erdi
ereki, edeki; azaro	azaroa in		ereki, ireki; aro	ereki; aro ¹⁷⁰		ereki, edeki, ediki	ereki
ernari; erditu, libretu	erditu, libratu*	erditu	ernari; erditu, libretu	ernari; erditu, libratu ¹⁷¹			erditu, libratu*
eri; azazkal	eri*; azazkal	eri; eri beatz	eri; azazkal, azaskal	eri; azazkal ¹⁷²		eri, iri	eri; azazkal
eri, gaizki (egon)	gaizki (egon)	eri	eri, gaixo egon	eri		gaizki (egon)	eri, gaizki (egon)
eriotze		eriotze		eriotze	eriotze, eriotza	eriotza, eriotze	
gaitz	min	gaitz	eritasun	eritasun, gaitz ¹⁷³	eritasun, min		
erle; erlekume	erle		erle; erlume	erle			erle
ero, edo			ernatu ¹⁷⁴	ernatu ¹⁷⁴	ernatu	iatzari	
erori, edodi, bota	erori	erori, eroi	ero, eron; erokeria	ero, eron, zoratu	xoratu; erokeria		erori
erosi, edosi / saldu		erosi / saldu	erori	erori, bota ¹⁷⁵	erori	erori	erori
erran, edan	erran	erran	erran, esan	erosi / saldu	errosi	saldu	
erre; egosi	erre	erre	erre; egosi; irekin	erran ¹⁷⁶	erran	erran	erran
				erre; egosi; irekin	erre	erre	erre*

¹⁷⁰ Lerro honetan: 'sembrar' eta 'tempero'. Arrietan honela esan ziguten: *aró óna dagó eta, inén dugu eultzi bát edérna*. Hiriberriko A. Usozek hitz bera erabili zuen behin eskutiz bastean: *Laneco arorik ezta*. Ilurdotzen, baina, *azaro* bildu genuen: *azároa es... el tiempo de la siembra, azároa, si*.

¹⁷¹ Lerroan: 'estar preñada, encinta' eta 'parir'. Arrietako berriemalleak argitu zuten: *libratu da* emakumea, eta *erdi da* animalia. Hiriberrin *arria in du* 'ha parido' ere bai (EAEL).

¹⁷² Lerro honetan: 'dedo' eta 'uña'. Urizko *eri beatz* hori 'erpu' da: *escayeco eri beazas irur gurucen itea*. Orotz-Beteluko G. Arzelusek hain ohikoa den *erri* eman bazigun ere, EeN delakoan *irri* bitxia agertzen da.

¹⁷³ Lerro honetan: 'enfermedad' eta 'mal'. Urizko *gaitz* hori, kasu honetan, zentzu espiritualetan dakusagu: *Jangoicoac libra gaizala gaitz, peligro espirituale eta corporal gucietaic*.

¹⁷⁴ Arrietako ernatu hori 'despertar' bide da: hona adibidea, Eguberrietako kantu baten baitan guri iritsia: *Jáiki, jáiki arrizainak, ernatu goizean, Belengo ziuádean Jesus jáio da ta*. Lakabeko lagina *ernarazi* batetik hartu dugu. Orotz-Betelun, baina, besterik bildu zuen A. M. Echaidek.

¹⁷⁵ 'Bota' aditza askotan aditu dugu 'erori' egokiaren sinonimo gisa. Hots, *bota da = erori da*. Ilurdotzen, *edodi* ere bai, behin bederen.

¹⁷⁶ Batzuetan, aditzari zenbait aditz lagunzaile arkitizean, laburkerak eta sandhiak sortzen dira. Honela, Arrietan eta Hiriberrin *ernateute* moduko emaitzak ohiko gauza izan dira, baina ez Ilurdotzen. Herri honetan *erosten dute* bildurik gaude edota, emaitza hitz bakarrean agertuz gero, *emateute*, metatesiaren erzein arrastorik gabe. Ilurdotzen, non berriemalleak, batzuetan, *r(r)* eta *d* nahastzen zituen, *edan* ere eman zuen, iruzkin xeble bat erantsiz: 'Si, pero... así, hablando en conversación, por ejemplo, pues... más suave, más bonito, edan: *nik edaten dut (...)*, si... jernan es muy torpe! una palabra fuerte'. Ez dugu uste, baina, hark hori horrela esanagatik, balizko aldaera hau zabaldurik egon denik, ez baitugu beste inon aditu.

Ilurdotz	Espoz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azaparren
erregi; alkate	alkate	erregina	erregi; alkate	ere(g); alkate	erregi	erregi; erregina	ere(g); alkate*
erregui; almute	almute			erregui; almute			
erreinu		erreinu, erreinu	erreino				
erreka; zubi	zubi		erreka; zubi	erreka; zubi			erreka
erremedio		erremedio			remedio		
erreposki, reposki			erreposki	erreposki			
erresto, errestu		erresto	erresto	errestu ¹⁷⁷			
errezatu; erregutu		errezatu, otoitz egin	errezu, errezatu	errezatu	errezatu; erregutu	otoitz in	
		errezibitu	errezibitu ¹⁷⁸				
erri; plaza	erri	erri	erri; plaza	erri; plaza		erri; plaza	erri
rosario		errosario	errosario	errosario, rosario			
errota; errotari			errota	errota; errotazai		errota	errota
erdetsi, erexi?		erdetsi, alkanzatu	erdetsi	erts ¹⁷⁹	erdetsi		
ertze; gibel	ertze; gibel*		ertze; gibel	ertze, ertse; gibel ¹⁸⁰		ertze	ertze; gibel*
eru; zalke, malkar	zalke		malkar	eru; zalke, malkar ¹⁸¹			
eskapatu, iyesi*		igasi in, ias (in)	eskapatu, eskapu	eskapatu; eskapu ¹⁸²		iyesi, igesi	

¹⁷⁷ Gazt. 'arrastra' da hori. Ilurdozko eta Urizko *erresto* hitza, ordea, 'astro' da, Hiriberrikoa bezala; hau, baina, Aranak bildu *mandorresto* hitzetik atera dugu.

¹⁷⁸ Hiriberriko A. Usozek era honetan idatzia: *Beasco Borondate Onan recivitu edota Zure carta badu zembait egun recibitudugula.*

¹⁷⁹ Arrietako hitz honek *erdetsi* aditzaren era laburrua dirudi: *Babi egin batén...-gatik, zerriko bidéa... nola berzea? erriko da.* Hona Urizko adibidea: *izangaicen digno erdeisteco Jesucristoin promesac.* Hona Lakabekoa: *¡Oh doatsua eta zorionekoa Ama Virginaren altzoan ilizea erdexten duend!*

¹⁸⁰ Lerroan: 'intestino' eta 'higado'.

¹⁸¹ Lerroan: 'gerón', 'veza' eta 'paja de veza'. Azkuek, baina, «paja de beza y gerón (sic), *paille de vece* (BN-s, R)» dela dio eta Iribarrenek honako: «MALCARRA. La paja de las leguminosas y especialmente la de las habas. Cuando es de veza se llama *malcarrá blanca*. [Pamplona, Cuenca, Zona Media]». Ilurdozen, *eru / iero* bildu genuen.

¹⁸² -tu bukaerako partizipioek, geroaldia egiteko atzizkia hartzean, -iko egiten dute maiz saio honek barne hartzen duen eremu guztian, -tuko gisako erak aditu baditugu ere. Arrietako datueran, esaterako, *ekendiko, eskapatiko, argitiko, ilundiko, kompondiko, pagatiko / pagatuko* eta *gelditiko* gisako adibideak ditugu; Hiriberrin, *saldiko, eskapatiko, eskondiko, arrimatiko, juntatiko, konprenditiko* eta *alkorizatiko*, baina *arnuko, Lakaben, zautiko / ezoutiko* (baina baita *arribetuko* eta *gertatuko* ere); eta Ilurdozen, *kendiko, saldiko, sendatiko, paratiko / paratuko, sinestatiko, enfadatiko* eta *ilundiko*. Urizko izkribuan, ordea, -tuko bukaerak dakuskigu: *geldituko* eta *ikusiko*.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
eskatu	eskatu	eskatu	eskatu	eskatu	eskatu	eskatu	eskatu
eske (ur eske)			eskean ibili	eske (ur eske)			
esker, eskar	esker	esker; grazia	esker; bearrrik; grazia	esker; bearrrik ¹⁸³	esker, eskar; grazia	esker	esker
eskar mil, eskar mila	eskar mila		eskar mila	eskar mila ¹⁸⁴	eskar mille	eskar mila	eskar mila
eskindu		ofrezitu		eskindu, ofrezitu		eskindu, eskini	
eskriture in; leitu	eskribitu		eskribitu; leitu	eskribitu; leitu	eskritura	leitu	
esku; ukondo*	esku	esku	esku; ukondo	esku; ukondo ¹⁸⁵		esku	esku
eskuin / ezker ¹⁸⁶	esku / ezker	esku / ezker	esku / ezker	esku, eskuin / ezker		esku / ezker	eskuin*? / ezker
esne; gazta	esne	esne	esne; gazta	esne, esne; gazta		esne; gazta	esne, esne; gazta
esperatu	esperatu	esperatu	esperatu, esperoan	esperatu	esperatu ¹⁸⁷	esperan	
astali, tapatu; tapa	espikatu		espikatu		adierazi		
estrabile, estrabile		tapatu	tapatu	estali, tapatu; estalki		estali; tapa	
etorri, torri	etorri, torri	etorri	etorri, torri	etorri, torri ¹⁸⁹	etorri	etorri, iturri	etorri, torri
enemigo		etsai	etsai; kontrario	etsai; kontrario			
etxe, etxa, itxe, itxa	etxe	etxe	etxe, itxe	etxe, etxe, itxe	etxe	etxe	etxe

¹⁸³ Arrietako bearrrik hau gatz. 'gracias a' edo da. Hona adibide bat: *bearrrik, eskuin daukezén gáuzá oék bezézénas, ezín ere atrakó, eméndik.*

¹⁸⁴ Ilurdotzen, Espotzen eta Azparrenen *eskerrik asko* ere bai eta Orotz-Betelun *eskarrik asko* eta *eskerrik anitz* (E).

¹⁸⁵ Lerroan: 'mano' eta 'codo'. *EI*-ko Orotz-Beteluko datuetan *eskuea* (mugaturik, nonbat) eta bukaera bereko beste hitzen bat (*maistruea*, adibidez), ageri da. Honen edo antzeko mugatzen bat geuk ere aditu dugu inoiz, Ilurdotzen bereziki, bixia izan arren.

¹⁸⁶ Ilurdotzen *eskuñe* eman ziguten, mugaturik, eta Arrietan ere *eskuñe*, herri honetan -e bukaera egeera horretan ezohikoa izan arren. Urizko Elizaldeek *esuyeco aldean* idatzi zuen.

¹⁸⁷ Lakabeiko hitz honi loturik Artzibarrerako bixia iruditzen zaigun adizkia dakusagu: *zer esperatu diroke!*

¹⁸⁸ Lerroan: 'cuadra', Nafarroan zehar oso hedaturiko mailgua.

¹⁸⁹ Ilurdotzen, *etorri* eta *torri* aferesidunaz gainera, *itorri* ere aditu diogu inoiz bertako berriemaileari, gutxitan bada ere. Echaideren *EeN* delakoan, baina, *iturri* dakusagu; fida-garria ote?

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
amain ondoan	onen ondoan	aren ondoan	aren ondoan	erxeain ondoan ¹⁹⁰	bere ondoan	ugaldeain ondoan	
etzan, etzin	goatzera fan	etzan	etzan	etzan ¹⁹¹		etzangu	goatzera fan
eulzi; estra(t)zie	eulzi	eulzi; estrazia	eulzi; estrazia	eulzi; estrazia ¹⁹²			
euri	euri	euri; txurustaka	euri; txurustaka	euri; burrustaka ¹⁹³		eguri, euri	auri
euskera / erdera	euskera, uskera	uskara	euskara / erdera	euskara / erdera ¹⁹⁴		euskara, uskara	uskera
eyartu, sekatu ¹⁹⁵			sekatu; txukatu	eyartu, sekatu		txuku	
paratu, padatu, paatu	paratu	paratu	ezari, yari, paratu	ezari, paratu ¹⁹⁶		paratu	
zautu, zaundu	ezautu	ezautu	eza(g)utu, zautu ¹⁹⁷	(e)zautu, ezaundu	eza(g)utu, zautu		
ezin erosi*?		ezin ekendu ¹⁹⁸	ezin ekendu ¹⁹⁸	ezin atra, ezin bilatu		ezin yoan	
ezkundu	ezkundu	ezkundu	ezkundu	ezkundu	ezkundu	ezkundu	ezkundu
ezti; argizeri	ezti*?; argizeri	ezti	ezti	ezti; argi(t)zari ¹⁹⁹	ezti	ezti*	ezti*
eztul	eztul*	eztul	eztul; atija	eztul; atija ²⁰⁰	eztul; atija	eztul; atija	eztul

¹⁹⁰ Lerro honetan, oro har, eta Arrietako kasuan zehazki, gazt. 'junto a (o cerca de) la casa' gendek, *etxe ondoan* ere bildu dugun arren. Orotz-Beteluko leihatilan ageri dena Aita Donostiak bildurikoa da; G. Garmendiak idatzi *Orraga* baladan *guatzaaren ondoan* dakusagu, genitiboaren erabilerari dagokionez aurrekoak baino kursu literario handiagoa duena. Leihatilara ekartzeko, beraz, hura jatorragoa iruditua zaigu.

¹⁹¹ Lerroan: 'eharse, tumbarse' edo. Ilurdotzen *guatzera juan* ere bai, Esporzen eta Azparrenen antzera. Orotz-Beteluko *etzangu* 'alcoba' izan liteke, literalki 'lugar de o para tumbarse', gure ustez (EJ).

¹⁹² Lerro honetan: 'parva' eta 'trillo'. Arrietan *eulxi* ere bai.

¹⁹³ Lerroan: 'luvia' eta '(lover) a cántaros'. Uztarrozen ere aditu genuen hitz hau aspaldi, Fidela Bernat abaztezinaren ahotik: *éuriari dión, zurristaka dión... que está lloviendo, llueve mucho*. Arrietan, bestalde, *eguri* ere bai.

¹⁹⁴ Arrietan eta Hiriberrin *euskara / uskara* eta *euskera / uskera* aldaerak bilduak izan dira. Arrietan, *eyera* ere bai.

¹⁹⁵ Ilurdotzen *iyartu / igartu / iartu* aldaerak ere bai. Hiriberriko *txukatu* 'secar' ere bada, baina 'enjugar' esanahiaz.

¹⁹⁶ Arrietan eta Hiriberri *zari* aditz afesiduna ere bai. Arrietan, inoiz, *jarri* eta *paatu / partu* ere bai.

¹⁹⁷ Hiriberrin *izaundu* ere bai; Lakabeko izkribuan *ezagutu / ezoutu / zoutu*, eta geroaldian honela: *Eztu beñere makurkeri bat zautitko edota Jaunarengandik ezoutitko ditu graziak bekatariandako*.

¹⁹⁸ Ezinaren ideia emateko Hiriberriko A. Usozek, behin, Iparraldean hain ezaguna den egitura erabili zuen: *nik ezitit detus ere etien ál, nióndik eré, kébal*

¹⁹⁹ Lerro honetan 'mie'l' eta 'cera' dugu, eta hurrengoan 'tos' eta 'estornudo'. Orotz-Beteluko, *eztulka* hitzetik aterata.

²⁰⁰ Lerroan: 'tos' eta 'estornudo'.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azparren
fabore, merxede	fabore, merxede	fabore	fabore	fabore			
falta	falta, faltatu, uts in	falta izan (faltatu?)	falta izan (faltatu?)	falta, faltatu, falta in			
	falsu	falsu	falsu			falso	
fama	fama	fama	famatu	fama		famatu	
fedo	fedo						
ferreta; burute	ferreta; burute ²⁰¹			ferreta, errada			ferreta, rada; burute
festa; dantza	festa, xai	festa, xai	festa, yai, xai; dantza	festa; dantza ²⁰²	yai; dantza	xai; dantza	dantza
	konfiatu	konfiatu	fiatu, fegaitz	fiatu			
forma	figura, inajen	figura, inajen	ixura, pinta	figura, forma ²⁰³	figura, irudi		
fito, laster, prisaka	laster		fito, laster, lasterka	fito, laster, prisaka ²⁰⁴	fito		laster
maiz	maiz		maiz ²⁰⁵	franko aldiz	maiz		
			frantses	frants, frantses		frants, frantses	
fresko			fresko, freskatu	fresko, freskatu			
frutu	fruto, frutu	fruto, frutu	fruta	frutu			
juña, juña; basurde		fuña; basurde	fuña; basurde	fuña; basurde ²⁰⁶		basurdai	
gabe	gabe	gabe	gabe	gabe ²⁰⁷	gabe	gabe	
gaitz	gaitz	gaitz	gaitz	gaitz; gaixkikeria ²⁰⁸			

²⁰¹ Lerroan: 'herrada' eta 'rodete'.

²⁰² Arrietan *lantza* ezohiko bat ere aditurik gaude, aspaldi Erronkaribarko Uztarrozen bezala.

²⁰³ Hona Arrietako adibide bat; *erráteunité... gizona... è(r)ozéin figura... ántzen... duéla*. Urizko hitza *figurik* hitzenik atera dugu, agian, 'figurarik' itxaron beharko bazen ere. Hiriberriko adibidea honako esaldian: *ta, zú takizá zé, zé ixurako animália zen urá?* Eta, Orotz-Beteluko, azkenik, jarraikoa: *Yrudi edo figura denen artean...*

²⁰⁴ Arrietan *egurrean* ere bai. Eta, Hiriberrin *laister / laisterka*.

²⁰⁵ Hiriberriko S. Arbonies mintzo: *maiz torriko da; maiz' eta 'aniz aldiz' berdin da* (A. Arana).

²⁰⁶ Lerroan: 'garduña' eta 'jabal'. Orotz-Beteluko *basurdai* hori G. Arzelusek eman zuen, birritan gainera.

²⁰⁷ Lerro honetan guztian *gabe* besterik agertzen ez bada ere, hemendik hegoaldera, hala Elortzibarko Zabalegin eta Eguesibarko Elkanon nola Urraulgoitiko Adoainen *bage* erabiltzen zela jakiterik badugu, ezagutzen diren lekuotako izkribuak ikusita; hori bai, hiruretan ere *gabe*-rekin batera.

²⁰⁸ Arrietan *makur* ere bai, *gaixkikeria* gisako aldaeraz gainera.

Ilurdotz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Berelu	Azparren
gaixo, pobre ²⁰⁹				gaixo	gaixo	gaixo, gaixo	
gaizto, gaixo, txar	gaixo	gaisto, txar	gaizto, gaixo, txar	gaixto, txar ²¹⁰	gaizto	gaizto, gaixto, txar	gaizto, gaixto
gaizki, gaizkixe		gaizki	gaizki	gaizki ²¹¹			
galdin, galdetu ²¹²	galdetu?	galdin	galdin	galdin	galdin	galdetu	galdin*
galdu		galdu	galdu	galdu; galazi	galdu	galdu	
galtra ²¹³		galtrak	galtrak	galtrak		galtra	
arengana		arengana		-gana; aengana ²¹⁴			
ganbela; aspil ²¹⁵				ganbela; aspil, aspil			ganbela; aspil
Juangolkoagandik		andre arenganik		-ganik; aenganik	Jauatenganik		
gañan, gañetik		gañan, gañetik ²¹⁶	gañan, gañean	gañean, gañetik		gañean	
gañera, gañerako*		gañerako	gañera, gañara	gañera, gañerako	gañera, gainerako	gañera	
garar	garagar		garagar	garagar; luzerna ²¹⁷			garagar*, luzerna
		garaitu		garaitu	garaitu, gainditu	garaitu	

²⁰⁹ Ilurdozko *gaixo* hori 'urririkari' moduan dugu Ilurdotzen: *Pobre áurre! gaixoa!* Arrietakoa ere antzera: *Joño, gaixo beak!* (gazt. 'pobres vacas') esan zuen berriemalle arrietarrak. Lakaben ditugun bi adibideetarik bat, halaber, 'pobre, digna de lástima' modura dakusagu: *Elizako Sakramentuak gure arima gaixoa azkarrizkote bihurtasunaren bedeldai izugarri ura egi-teko*, baina bestean zentzu afektiboa agerikoa da: *nola neri Ama gaixoa lagundu dimazun*. Sermoi honetan *koitau* hitza ere bada, baina ez dakigu inguru honetakoa izan den.

²¹⁰ Arrieta honetan *gaixto* besterik bildu ez dugun arren, hurbileko Hiriberrin *gaizto / gaizto / gaisto* aldaerak ditugu.

²¹¹ Arrietan *gaixki* eta *gaizki* ere bai. Ilurdotzen *gaizkixe*, bere esanahi bereziarekin: *dá gaizki, gaizkixe iteko, es un poco difícil de hacer*. Urizko izkribuan, adberbioaz gainera, izena ere izan daiteke: *Nore itendu bada vecatu mortala vada, gaizqui itenduena deseyuric gabe?* Eta, Arrietara itzuliz, *-ki* atzizkia erantsirik hitz mardoska dakusagu: *politki, ederki, erreposki, fiarki eta ausarki, gutxienez*.

²¹² Lerro honetan 'preguntar' dugu. Ilurdotzen *galdatu* ere bai.

²¹³ Ilurdozko berriemalleak *gáliza es... la media* esan zuen.

²¹⁴ Arrietan *orregana* eta *guregana* ere bai, baina *amaingana*. Ilurdotzen *arregana* gisako aldaera eta *neregana* ere bai, baina baita *aitaingana* eta *amaingena* ere (Arrietan *amaingana*). Uritzen, azkenik, *arengana / zuregana / guregana / guregana* dakusagu.

²¹⁵ Lerro honetara bi 'pesebre' mota ezberdinak ekarri ditugu. Ilurdotzen, gainera, *maxadera* eman zituzten.

²¹⁶ Urizko izkribuan *n*-rekin ere bai, behin bederen: *Maitaceo gure Jauna gauza gucien genetic...*

²¹⁷ Lerro honetan: 'cebada' eta 'alfalfa'.

Ilurdortz	Espotz	Uritz	Hiriberri	Arrieta	Lakabe	Orotz-Betelu	Azaparren
garbi, xau / zikin	garbi / zikin	garbi / zikin	garbi / zikin	garbi / zikin			garbi / zikin
garbitu, xautu	garbitu	garbitu / zikindu	garbitu / zikindu	garbitu / zikindu ²¹⁸	zikindu	garbitu / zikindu	garbitu
gari, ezkandia	gari	gari	gari	gari; ezkandia ²¹⁹		gari	gari
garzume; pazkua		garzima; bazko	bazkoa	garzuma; bazkoa ²²⁰		garzuma	
		izigarri	nekagarri	-gari; alkegarri	izigarri		
gastatu, gastu			gastatu, gastu	gastatu			
katu, gatu; basakatu*	gatu; basagatu*		gatu; basagatu	gatu; basagatu ²²¹			gatu*
gatz; azukere ²²²	gatz		gatz; azukare	gatz; azukre, zukre			gatz
gauze	gauze; gauza	gauza	gauza	gauza, gautza	gauze; gauz	gauza	
gazte / zar; aso ²²³	gaste / zar		gazte, gazteria / zar	gazte / zar; aso	zar	gazte, gaste / zar	gazte / zar; aso
geyago, yago	yago	geyago	geyago, yago	geyago, yago ²²⁴	yago	geyago, yago	yago, yao
geldi-geldie			geldi-geldia	geldi-geldia ²²⁵	emeke emeki		
gelditu, baratu		gelditu, paratu	gelditu, geiltu	gelditu, geiltu ²²⁶			

²¹⁸ Lerro honetan 'lavar; limpiar' eta 'ensuciar'. Ilurdozko bi hitzak gatz. 'lavar' dira; *garbitu*, adibidez, aurpegia, eta *xautu*, arropa. Herri honetan *zikindu* ere bildurik gaudu, lekunik ezagatik leihatilara ekarri ez dugun arren.

²¹⁹ Lerro honetan: 'trigo' dugu aurrenik eta, bigarren hitzari dagokionez, hona Iribarrenek (VN) dioena: «EZCANDIA. Escandia o espelta que se da como pienso a las caballerías. *Triticum eselta* [Roncal, Salazar, valle de Erro]. // Trigo que se da de comer al ganado [V. de Roncal]».

²²⁰ Lerroan: 'Cuaresma' eta 'Pascua'. Ilurdoztik hurbileko Irotzen 'bazko' eman zioten Irigarayri: *Bazko gáizto ilzár*.

²²¹ Lerroan: 'gato' eta 'gato montés'. Arrietan *katu / kattu* ere bai; azkena, edo txikia izateagatik edo, agian, balio afektiboa erakusteagatik erabilia, antza. Hiriberrin *katu* eta *basakatu* ere bai.

